

2020 > 2030 GIPUZKOA AGENDA

TRANTSIZIOKO GIZARTE POLITIKAK

(2021-2023ko Ekintza Plana)

AURKIBIDEA

Aitzinsolasa: Zainketen lurralde baterantz	2
Sarrera	4
1. kapitulua: Covid-19aren pandemia: Ikasitako ikasgaiak	
1.1. Sarrera	8
1.2. COVID-19aren krisia	8
1.3. Ikasitako ikasgaiak	9
1.4. Azken kontsiderazioak	10
2. kapitulua: Trantsizioko Gizarte Politikak	
2.1. Sarrera	12
2.2. Hiru politikak gizarte politiketan	12
2.3. Trantsizioko gizarte politikak	13
2.4. Azken kontsiderazioak: trantsizio gaitasunak	15
3. kapitulua: Gipuzkoa 20>30 Agenda: Trantsizioko Gizarte Politikak	
3.1. Sarrera	16
3.2. Gipuzkoa 20>30 Agendaren printzipio gidariak	16
3.3. Gipuzkoa 20>30 Agendaren helburuak	17
3.4. Gipuzkoa 20>30 Agendaren emaitzak	20
4. kapitulua: 2021-2023ko ekintza plana: Trantsizioko Gizarte Politikak	
4.1. Sarrera	21
4.2. 2021-2023 Ekintza plana: Ardatzak eta jarduketak	21
4.3. 2021-2023 Ekintza Planaren kudeaketa	31
4.4. 2021-2023 Ekintza Planetik espero diren emaitzak	31
Eranskinak	
I.- 2021-2023 jardueren fitxak	37
II.- Exekuzioaren kronograma	47
III.- Gardentasuna baliozkotzean eta adostasunean	52

Aitzinsolasa

Zaintzen lurralde baterantz

Gipuzkoako Lurralde Historikoa gizarte-politikako hainbat jardura garatzen ari da 2015etik, honako hauek sustatzeko: gizarte-berrikuntza, berrikuntza publikoa, elkarlaneko gobernantza, arreta- eta zaintza-ereduaren eraldaketa eta gizarte-zerbitzuen kalitatea bermatzeko sistema.

Covid-19 pandemia inflexio-puntu bat izan da Gipuzkoako gizarte-zerbitzuen ibilbidean. Sistemaren ahulezia batzuk ikusita, hala nola koordinazio soziosanitarioko zailtasunak, etxeko arreta indartu beharra, lan-baldintzak hobetu beharra, zaintza-eredu berrien prestakuntza bultzatu beharra, eta egoitza-zentroetan berrikuntzak duen garrantzia, besteak beste, nabarmendu da pertsonak eta horien harremanak ardatz dituen arreta-, zaintza- eta laguntza-eredu baterantzko trantsizioa sustatzearren garrantzia, zaintzarako tokiko ekosistemak indartzuz.

Horrela, trantsizioko gizarte-politikek Gipuzkoa Zaintza Lurralde bihurtu nahi dute. Zaintzen lurraldea prozesu bateratuen multzo baten emaitza da. Prozesu horiek ezaugarri hauen arabera defini daitezke.

Lehenik eta behin, Zaintzarako Lurralde batek honela definitzen ditu gizarte-politikak: lege-arauen, esku-hartze publikoko zerbitzuen eta kontrol-tresnen multzoa, zeinak helburu baitu bizi-ziklo osoan zehar pertsonen zaintza eta bizi-kalitatea sustatzera bideratutako kalitatezko zerbitzu eraginkor eta gardenak bermatzea. Kalitatea zerbitzuen kalitatea egiaztatze eta ebaluatze sistemak esker bermatzen da. Eraginkortasuna bermatzen da erabiltzaileengan oinarritutako kudeaketa eredu bizkorrei esker. Gardentasuna bermatzen da ebaluazio parte-hartzaileari esker, eta zaintza-prozesuetan parte hartzen duten eragile guztiei bideratzen zaien komunikazio eta informazio eraginkorrei esker.

Bigarrenik, Zaintzen Lurralde batek etengabeko arreta bermatzen du maila anitzeko gobernantzako mekanismo berritzaileak abian jarriz, maila guztietan osasun-zerbitzuen eta gizarte-, osasun-, gizarte- eta komunitate-zerbitzuen koordinazio instituzionala ahalbidetuz, kalteberatasunaren eta hauskortasunaren mapeo-metodologiekin, kasuen kudeaketarekin, erreferentziako profesionalekin eta bizi-historiekin konbinatuta, zeinek zaintzak erabiltzaileen lehentasunen eta premien arabera pertsonalizatzea errazten baitute.

Hirugarrenik, Zaintzarako Lurralde batek lehentasuna ematen dio bizilekuari zaintzarako gune pribilegiatu gisa, eta horrek esan nahi du etxeko arretako gizarte-zerbitzuetan berrikuntzak egin behar direla (araudia, politika-tresnak eta jarraipen- eta ebaluazio-tresnak), familiakoei eta hurbileko zainzaileei laguntzeko beharrei erantzun behar zaiela, zainzaileei prestakuntza eta laguntza eman behar zaiela (zaintza formala eta informala), eta apurka-apurka, zaintza-lanetan genero-desparekotasunei erantzun behar zaiela.

Laugarrenik, Zaintzen Lurralde batek ez ditu alde batera uzten pertsona kalteberei, ahulei eta/edo mendetasun-egoeran, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan daudenei edo babesgabetasun-egoeran daudenei zuzendutako arreta-baliabideetako zaintzak. Hala ere, zentro horiek ekosistema bihurtzen ditu, egoitza-zaintzak tokiko komunitatearekin lotuz, erabiltzaileen, senideen eta hurbilekoen parte-hartzea indartuz, profesionalen prestakuntza eta lan-baldintzak hobetuz, erabiltzaileak zaintzeko plan pertsonalizatuetan aktiboki laguntzeko.

Bosgarrenik, Zaintzarako Lurralde batek zaintzeko estrategiak abian jartzen ditu zaintzaileentzat ere, zaintza-jarduerak modu formalean (profesionalak) edo informalean (senideak eta hurbilekoak) egin ditzaten. Zaintzaileentzako laguntza etxeko zaintza-eredu ekosistemikoen osagai nagusi bat da.

Seigarrenik, Zaintzen Lurralde batek esperimendazio soziala garatzen du ideiak, produktuak, prozesuak eta/edo metodologiak testatzeko, etika-kodeetan eta esperimenduari ikaskuntza oinarritutako irizpide esperimendalaren arabera. Zaintzen lurralde bat etengabe ikasten ari den lurralde bat da, teknologia digitalez baliatzen dena ikaskuntza-sareei euskarria emateko.

Azkenik, zaintzen lurralde batek zerbitzuen kalitatea eta gizarte-eragina monitorizatzeko eta ebaluatze estrategiak garatzen ditu, partaidetza-metodologiak (erabiltzaileen, senideen eta hurbilekoen zein profesionalen eta adituen metodologiak), joeren analisia eta adierazle-sistemak barne. Sistemaren ebaluazio-gaitasuna hobetzeak ebidentzian oinarritutako gizarte-politikak garatzea errazten du.

Zainketen lurralde bateranzko trantsizioa bultzatzeko, Gizarte Politiketako Departamentuak (Gipuzkoako Foru Aldundia) abian jarri du *Gipuzkoa 20>30 Agenda: Trantsizioko Gizarte Politikak* Gipuzkoa 20>30 Agendak arreta- eta zaintza-eredua errotik eraldatzea proposatzen du Gipuzkoako gizarte-politika guztietarako, kontuan hartuta lurraldearen erronka handienetako bat trantsizio demografikoarekin lotuta dagola.

Agenda lau ekarpen zentraletan oinarrituta diseinatu da: a) Gipuzkoako gizarte-zerbitzuek inplementatu eta koordinatutako jarduketa nagusiei buruzko balantze bat (2015-2020), b) Gipuzkoako gizarte-zerbitzuetan eta arreta eta zainketako sare publikoan Covid-19ak duen inpaktuaren inguruan egindako azterlanak (2020) c) zahartze osasungarrirako ADINBERRI estrategia exekutatzean lortutako emaitzak eta Etorbizuna Eraikizen esparruan ezarritako jarduerak (2016-2020); d) Etorbizuna Eraikiz Think Tank-en esparruan egindako ekarpenak: Ongizatearen Estatuaren etorkizuna, Liburu Zurian laburbilduta: Arretaren eta zaintzen etorkizuna Gipuzkoako Lurralde Historikoan (2021).

Gipuzkoa 20>30 Agendaren aurretiazko bertsio bat sistemako hainbat eragilerekin eztabaidatu da, besteak beste: a) Gizarte Politiketako Departamentuko lantalde teknikoak (GFA), b) «Etorbizuna Eraikiz Think Tank: Ongizatearen Estatuaren etorkizuna» osatzen duten pertsonak, c) Egoitza-zentroetako eta hirugarren sektoreko erakundeetako profesionalak eta arduradunak; d) Gizarte-politiketan adituak direnen hautaketa bat.

Gipuzkoa 20>30 Agenda: Trantsizioko Gizarte Politikak ahalegin kolektiboa da, gizarte-politikak etorkizuneko palanka gisa kokatzeko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko arreta- eta zaintza-eredua eraldatzea ahalbidetuko duen bidea, bidezidor bat eskaintzeko, elkarlaneko gobernantzan, gizarte-esperimentazioan eta ebaluazio sistemikoan oinarrituta.

Maite Peña
Gizarte Politikako diputatua
Gipuzkoako Foru Aldundia

Sarrera

Gipuzkoako gizarte-politiken ibilbidea

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak, 2015ean, gobernu on baten nortasun ezaugarriarekin lerrokatutako politika publikoak gauzatzearen aldeko apustua egin zuen; apustu horrek jasotzen dituen artean daude berrikuntza sozialarekiko kezka, emaitzetara bideratutako kudeaketa eta pertsonen arretan etengabeko hobekuntza bilatzea, zerbitzuen ebaluazioan hobekuntzak lortzearekin batera. Horren guztiaren lekuko ditugu joandako urte hauetan zehar ekindako jarduketak, plan eta erreforma ugariak, ugaritasun hori ez baita soilik kopuruan ikusten, baizik eta baita gauzak egiteko moduetan ere, Gipuzkoako gizarte eragileen konplizitatea bilatzen du eta.

Prozesu horretan guztian, Gipuzkoako Foru Aldundiak esan du etorkizuneko erronkei emandako erantzunak ez datozela soilik ohiko tresnetatik. Beharrezkoa da berritzea, politika publikoak pixkanaka eraldatzearen aldeko apustua egitea. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak, joan den legegintzaldiaren hasieratik (2015), Etorbizuna Eraikiz bultzatu zuen, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren etorkizuneko erronkak modu kolektiboan hauteman eta aurreikusteko, erronka horiei aurre egiteko modua diseinatzeko, ingurune errealean erantzun posibleak esperimintatzeko hainbat eragileren laguntzarekin, eta emaitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoetan aplikatzeko.

Covid-19 pandemiaren inpaktua

Egoera horretan sartu zen COVID-19ak eragindako krisi sozio-sanitarioa eta ekonomikoa, trantsizio demografikoaren ondorioz identifikatutako erronketan sakondu duena. Hala, krisiak hainbat erronka bizkortu ditu gizarte politiketarako, hala nola sistemen koordinazioa, pertsonalizazioan oinarritutako arreta eta zainketen eredu berri baten sustapena, laguntzaren kalitatearen hobekuntza, etxeko arreta indartzea, arretarako, zaintzarako eta laguntzarako tokiko ekosistemak sortzea, eta profil profesional berriak birdefinitzea gizarte zerbitzu berritzaileak eta eraginkorrak eskaintzeko.

Aurrekaririk gabeko egoera baten erdian, urgentziaz eta tragediaz inguratuta, zaila da atzerapauso bat ematea, eta beharrezkoa da krisi batek dituen aukeretan pentsatzea. Alabaina, eta iraganean antzeko egoeretan gertatu izan den moduan, sekula ez dugu krisi on bat bazterrean utzi behar, aukera baliatu gabe lehendik finkatuari erronka jotzeko eta aukera eta erronka berriak ezartzearen bidetik aldaketa eta eboluzioa sustatzeko.

Trantsizioko gizarte politikak

Trantsizio demokratikoa, biztanleriaren zahartzearekin batera, Gipuzkoako lurralde historikoak aurre egin beharreko erronka nagusia da. Erronka horri erantzuteko, ADINBERRI Lurralde Estrategia jarri da abian, elkarlaneko gobernantza indartzeko eta proiektu esperimintalak bultzatzeko, zahartze osasungarriari lotutako irtenbideak probatu eta aurreratze aldera. Etorbizuna Eraikiz programaren ikuspegi esperimintal eta kolaboratiboan, ADINBERRI estrategian eta Trantsizioko Gizarte Politiketan oinarritutako ikuspegi berri baten garapenean txertatzen da Gipuzkoa 20>30 Agenda hau.

Trantsizioko Gizarte Politikak honela egituratzen dira: trantsizio demografikoaren, gizarte inklusioaren, COVID-19aren krisiaren inpaktuaren eta pandemiaren aurretik garatzen ari ziren politikekin jarraitzeko beharrezko arazo konbinatuei erantzuna emateko, bizitza osorako zaintza eredu berri bat bultzatzearen inguruan.

Gipuzkoa 20>30 Agenda: Trantsizioko Gizarte Politikak

Gipuzkoa 20>30 Agendaren helburu nagusia da esparru eta zuzendaritza orokor bat eskaintzea, datozen 10 urteetan jarduteko modu berri bat gidatzeko eta gizarte-eragile guztiek eraldaketa-ingurune dinamiko batean duten zeregina indartzeko.

Gipuzkoa 20>30 Agendak apustua egiten du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Gizarte Politiketako lau arlo handitan arretaren, zaintzen eta laguntzen ereduak aldatzen jarraitzearen alde:

1. eraldaketa: Gizarte Politika guztietarako arreta-, zaintza- eta laguntza-eredu berri bat bultzatzea

Gipuzkoa 20>30 Agendak gizarte politika guztietarako arreta-, zaintza- eta laguntza-eredua aldatzea sustatzen du. Eredu-aldaketa horrek gizarte-zerbitzuen eraldaketa kultural eta instituzional sakona dakar berekin, bost aldaketa-ildo nagusi garatu baitira: a) gizarte-zerbitzuak pertsonalizatzearen aldeko apustua, b) zainketarako tokiko ekosistemak sortzea (etxeko arreta indartuko dutenak, osasun-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioak konektatuz), c) egoitza-zentroak eta beste ostatu-baliabide batzuk birdiseinatzea (eguneko zentroak, harrera-zentroak, etab.), ostatu modu berrietara lotuta; d) lan-baldintzak hobetzea, prestakuntza eta espezializazio handiena duen sektorea erakargarriagoa izan

dadin; e) berrikuntza sozial eta teknologikoa bultzatzea, esperimentazio sozialari esker, eredu-aldaketari euskarria emateko eta horren ebidentziak sortzeko. Lan-ildo horiek eskatzen dute araudia sakonki eguneratzea eta sistemaren eraginkortasun eta jasangarritasun ekonomiko handiagoa lortzera bideratutako gizarte-zerbitzuak egokitzea.

2. eraldaketa: Lurralde mailan elkarlaneko gobernantza indartzea

Gipuzkoa 20>30 Agendak elkarlaneko gobernantza indartzen du, hau da, gizarte-politiken belaunaldi berri bat diseinatu, ebaluatu, gomendatu eta sustatzeko espazio parte-hartzaile eta deliberatibo berriak bultzatu eta sortzea. Elkarlaneko gobernantzak trantsizioko gizarte politiken produkzio prozesuarekin konektatzen ditu instituzioak, erakundeak eta erabiltzaileak, etorkizunera begirako partaidetzaren diseinuan eta trantsizio agenden eraikuntzan oinarrituta.

3. eraldaketa: Esperimentazioa eta berrikuntza integratua bultzatzea

Gipuzkoa 20>30 Agendak esperientzia pilotuak (produktu eta zerbitzu berriak) diseinatzeko, inplementatzeko eta ebaluatzeko eredu esperimentalen aldeko apustua egiten du. Eredu horiek modu operatiboan bultzatzen dute arreta, zaintza eta laguntzako eredu berrietarantzko pixkanakako aldaketa. Proiektu esperimentalak zaintzako tokiko ekosistemen esparruan inplementatzen dira. Proiektu esperimentalak testuinguru errealetan aztertu ondoren, esku hartzeko eta zaintzeko produktu, zerbitzu edo metodologia berriak diseinatzen dira, berrikuntza teknologikoa eta gizarte-, antolamendu- eta erakunde-berrikuntza (berrikuntza integratua) konbinatuz.

4. eraldaketa: Zaintzak ebaluatzeko eta trantsizioko gizarte-politikak monitorizatzeko eredu berri bat garatzea

Gipuzkoa 20>30 Agendak gizarte-politikak ebaluatzeko sistema berri bat sustatzen du. Sareko ebaluazio-sistema bat da, hainbat ebaluazio-nodoz osatua (erabiltzaileak, familiak, kontraste-taldeak eta nazioarteko adituak), gizarte-zerbitzuen kalitatea egiaztatzeko eta gizarte-politiken erabiltzaileen bizi-kalitatearen hobekuntzan duen eragina ebaluatzeko gai dena. Ebaluazio-sistema berriak teknika kuantitatibo, kualitatibo, esperimental eta parte-hartzaileen erabilera konbinatzen eta indartzen du gizarte-zerbitzuak eta sistemaren iraunkortasuna ebaluatzeko eta arreta, zaintza eta laguntzako eredu berri baterako trantsizioa monitorizatzeko.

Gipuzkoa 20>30 Agendaren xede-biztanleria

Gipuzkoa 20>30 Agendak hainbat xede-populazio ditu, besteak beste:

- Beren bizi-kalitatea hobetzeko arreta, zaintza eta laguntza behar duten erabiltzaileak eta haien laguntza-inguruneak (senideak eta hurbilekoak). Horien artean nabarmentzekoak dira babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeei, gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsoneri, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeeri, eta ahulak eta mendetasun-egoeran daudenak (dela mendekotasun fisikoa, intelektuala edo/eta soziala).
- Gipuzkoako gizarte-politikei dagokien erakunde-sareko gizarte-zerbitzuen pertsona erabakitzzaileak, kudeatzaileak eta/edo teknikariak izatea politiken arduradunak.
- Zentro motetan (egoitzakoak, egunekoak, harrerakoak, etab.), zerbitzu publiko soziosanitarioetan eta mota eta helburu desberdinetako erakundeetan (hirugarren sektorea, enpresak, elkarteak, kooperatibak, etab.) lan egiten duten profesionalak eta kudeatzaileak, beren jarduerak behar duten pertsoneri arreta, zaintza eta laguntza eskainiz garatzen dutenak.
- Pertsona ahulei eta mendekoei arreta, zaintza eta laguntza emateko eredu aldatzeko politikak, programak eta jarduerak sortzen adituak diren eta interesa duten ikertzaileak.

20 >30 Agendaren operazionalizazioa 2021-2023ko ekintza plana

Gipuzkoa 20>30 Agenda gida estrategiko bat da, datozen 10 urteetarako arreta-, zaintza- eta laguntza-ereduaren aldaketa gehitzailerako. Gizarte-zerbitzuen sistema eraldatzeko prozesu hori gauzatzeko, Ekintza Plan bat proposatzen da, 12 trantsizio-ardatzek eta gizarte-politikako 39 jarduketaz osatua.

Jarduketa-ardatzek 20>30 Agenda operazionalizatzen dute, arreta, zaintza eta laguntzako ereduaren trantsizioari buruzko bost arazo nagusi mota estaltzearen aldeko apustua eginez: a) COVID-19aren pandemian sortzen ari diren behar berriak monitorizatzea eta gizarte-baliabideen sare publikoa egokitzea behar horiei erantzuteko; b) Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta zaintzari, arretari eta laguntzari lotutako gizarte-zerbitzuetako langileen ongizatea hobetzea; c) Ekimen esperimentalak eta berrikuntzakoak bultzatzea, dimentsio digitala eta esku-hartze plan berrien garapena barne, gizarte-politiken arlo guztietan; d) Jarduera esperimentalak garatzea, bai etxean bai egoitza-zentroetan zaintza-eredua aldatzeko; e) gizarte-eragina ebaluatzeko sare bat bultzatzea, gizarte-zerbitzuen iraunkortasun ekonomikoa, eta arreta, zaintza eta laguntzako ereduaren trantsizioa monitorizatzea.

1. taulan 2021-2023 Ekintza Plana operazionalizatzen duten trantsizio-ardatzek eta jardueren laburpena aurkezten da.

1. taula: 2021-2023 Ekintza Planeko trantsizio-ardatzen eta jarduketaren sintesia	
TRANSTIZIO-ARDATZAK	JARDUKETAK
COVID-19aren kudeaketa soziosanitarioaren laguntza	1. jarduketa. Babes pertsonaleko hornidurak ziurtatzea (COVID-19) 2. jarduketa. Monitorizazio adimenduna, COVID-19a goiz detektatzeko eta kontrolatzeko. 3. jarduketa. COVID-19aren aurkako txertaketa kanpainaren koordinazioa.
2. ardatza: COVID-19aren ondorioen kudeaketa psikosozialaren euskarria.	4. jarduketa. Egoitzetako adinekoentzako bisita-erregimena eguneratzea. 5. jarduketa. COVID-19a kudeatzeko etika kodeak berrikustea. 6. jarduketa. Egoitza zentroak eta komunitatea lotzea.
3. ardatza: Gizarte baliabideen sare publikoa gizarte premien bilakaerara egokitzea	7. jarduketa: COVID-19tik eratorritako premia sozial berrien azterketa Gipuzkoan 8. jarduketa. Zentroak COVID-19ak eragindako egoera berrira egokitzea 9. jarduketa. Gizarte zerbitzuen erakunde hornitzaileekiko konpromisoa indartzea
4. ardatza: Zerbitzuen eta egoitza eta komunitate zentroen eskaintza hobetzea	10. jarduketa. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa egokitzea eta hedatzea. 11. jarduketa: Gipuzkoako Lurralde Historikoko egoitza-zentroen sarea pixkanaka egoitza-arretaren eredu berrira egokitzea
5. ardatza: Erabiltzaileen ongizatea, lan-baldintzak eta langileen gaikuntza hobetzea zaintza-eredu berrian	12. jarduketa. Erabiltzaileen bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea 13. jarduketa. Langileen emozio eta harreman zaintzarako laguntza hobetzea 14. jarduketa. Zainketan langileen ongizatea, lan-baldintzak eta gaikuntza hobetzea zainketa-eredu berrian 15. jarduketa. Herritarren artean zaintza eredu berriei buruzko prestakuntza sustatzea.
6. ardatza: Zaintzen digitalizazioa sustatzea	16. jarduketa. Zaintzen tokiko ekosistematarako Herri LAB plataforma digitala abiaraztea 17. jarduketa. Ikaskuntzarako plataforma digital bat diseinatzea egoitza zentroetarako 18. jarduketa. Etxeetako eta egoitza-zentroetako digitalizazioa bultzatzea
7. ardatza: Komunikaziorako eta parte-hartze sozialerako estrategia bat ezartzea	19. jarduketa. Trantsizioko Gizarte Politikei buruzko Web Orrialdea abian jartzea 20. jarduketa. Zainketen alorreko komunikazio kanpaina bat abiaraztea 21. jarduketa. Partaidetzako Sentsibilizazio Programa bat ezartzea (kontraste-taldeak, Gipuzkoa 20>30 Agendaren aurrerapenak eztabaidatzeko: Trantsizioko Gizarte Politikak).
8. ardatza: Trantsizioko agendaren diseinua	22. jarduketa. Lurralde osoan gizarte- eta komunitate-boluntarioria sustatzea. 23. jarduketa. Parte-hartze Eredua garatzea trantsizio-politikak elkarrekin diseinatzeko (Etorikizuna eraikiz Think Tank, Liburu Zuriaren jarraipenerako kontraste-taldeak). 24. jarduketa: Gizarte-esparruko erakundeekin elkarriketa soziala sustatzea (Elkarriketa Zibilerako Mahaia)
9. ardatza: Trantsizioen Agenda garatzea	25. jarduketa: Egoitza arretako ostatuaren etorkizunari buruzko hausnarketa. 26. jarduketa. Berrikuntza eta esperimendazio soziala sustatzea 27. jarduketa. Gipuzkoa 2030 Zaintza Lurraldea estrategia hedatzea 28. jarduketa. Haurren babesgabetasunaren prebentziorako eta arretarako plan berria hedatzea 29. jarduketa. Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko eredu integral berria hedatzea 30. jarduketa. Gizarte Inklusioko Plan berria hedatzea 31. jarduketa: Gipuzkoan adimen eta garapen desgaitasuna duten pertsonen parte hartzea eta bizi kalitatea babesteko eta sustatzeko eredu berria
10. ARDATZA: Zainketa-eredu berri bat garatzea	2. JARDUKETA: Bakardadeen aurrean lurralde estrategia bat diseinatzea eta hedatzea 33. jarduketa. Zaintzaren eta zerbitzuen pertsonalizazioa sustatzea gizarte politikan. 34. jarduketa. Zaintzako tokiko ekosistemen garapena sustatzea (Zaintza Herri Lab) 35. jarduketa. Lurralde estrategia bat diseinatzea eta hedatzea etxeko arreta eta zaintzarako eredu berri batera joateko.
11. ardatza: sareko ebaluazio eredu garatzea	36. jarduketa. Berrikuntza eta kudeaketa aurreratua sustatzea, Gizarte Politiketako Departamentuaren lehenasunezko jarduketa esparru gisa. (1. jarduketa) Partaidetzako ebaluazioa bultzatzea egoitza zentroetan 38. jarduketa. Gipuzkoako Lurralde Historikokoan gizarte-zerbitzuak sarean egiaztatze eta ebaluatze sistema bat diseinatzea eta abian jartzea
12. zeharkako ardatza: Genero eta hizkuntza berdintasuna sustatzea	39. jarduerak (zeharkakoa): Genero-berdintasuna eta hizkuntza-berdintasuna sustatzea 2021-2023 Ekintza Planeko jarduerak guztietan.

20>30 Agendaren estrategikoak

1. emaitza. Covid-19aren aurkako estrategia

2030. urtean, Gipuzkoako Lurralde Historikoak Covid-19 pandemiaren kudeaketa-eredu bat egonkortuko du egoitza-zentroetan eta bestelako bizitoki sozialetan. Horrek esan nahi du zentroen % 100ek izango dituztela babes pertsonalerako materialak, etika-kode berrietan edo berrikusietan oinarritutako kudeaketa-protokoloak eta pandemiari buruzko komunikazio-estrategia aktiboak, erabiltzaileen, familien eta profesionalen arteko informazio-fluxua errazteko. Egoitza-zentroen % 100ek prebentzio-sistemak, arriskuen kudeaketa eta monitorizazio adimenduna izango dituzte zentroetan Covid-19 kasuak identifikatzeko eta kudeatzeko. Egoitza-zentroen % 100ek larrialdi sozialei eta sozio-sanitariei buruzko ikaskuntza-sistema bat izango dute, kontingentzia-planetan egituratuta.

2. emaitza. Zainketa-eredu berria

2030. urtean, Gipuzkoako Lurralde Historikoak pertsonak eta komunitatea ardatz dituen zaintza-eredu berri bat garatuko du. Horrek esan nahi du arreta eta zaintza behar duten pertsonen % 85 etxean biziko dela. Lurraldeko udalerrien % 25ek zaintzako tokiko ekosistema bat garatzeko funtsezko jardueraren bat hasita izango dute. Zaintza-eredu berriari lotutako langileen % 100ek bere lan-baldintzak hobetuta izango ditu.

3. emaitza. Zainketen gobernantza-eredu berriak garatzea

2030ean, Gipuzkoako Lurralde Historikoak finkatuta izango ditu maila anitzeko elkarlaneko gobernantza-mekanismoak eta erabiltzaileek, senideek eta zaintza-eredu berriari lotutako funtsezko erakundeek parte hartzeko tresna egonkorak. Horrek esan nahi du gizarte-politiken erabiltzaileen % 50 beren zaintzari buruzko erabakiak hartzeko mekanismo erregularretan integratuta egongo direla.

4. emaitza. Zaintzen berrikuntza sustatzea

2030ean, Gipuzkoako Lurralde Historikoak finkatuta izango du gizarte-esperimentazioan oinarritutako berrikuntza integratuko (soziala, teknologikoa eta instituzionala) eredu propioa. Horrek esan nahi du gizarte-zerbitzuen sareko baliabideen % 100ek teknologia digitalak izango dituela, zerbitzuen kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa errazteko. Zaintzaren eta arretaren arloko berrikuntza sustatzeko baliabide publikoak jaso dituzten lurralde-erakundeen % 60k metodologia, prototipo edo negozio-eredu berriak integratuko ditu, bizi-kalitatea eta zaintzen pertsonalizazioa hobetzeko.

5. emaitza. Zaintzen ebaluazioaren garapena

2030ean, Gipuzkoako Lurralde Historikoak finkatuta izango du kalitatea egiaztatzeko eta ebaluatzeko eredu, metodologia eta tresna bat. Horrek esan nahi du gizarte-zerbitzuen sareko baliabideen %50 ebaluatu eta egiaztatuko dela. Zaintzei lotutako zerbitzu publikoen erabiltzaileen % 50ek parte hartuko dute zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko prozesuetan. Foru-sareko gizarte-zerbitzuen % 100ek aginte-taula bat izango dute beren jarduerak monitorizatzeko, eraginkortasunaren, eraginaren eta trantsizioaren adierazle-sistema batean oinarrituta.

Dokumentuaren antolaketa

Dokumentuak hiru kapitulu dauzka. Lehen kapituluak COVID-19aren krisitik ikasitako irakaspenak eskaintzen ditu. Ikasgai horiek Gizarte Politiketako Departamentuak (GFA) egindako "Las Políticas Sociales en tiempo de la COVID-19" (Gizarte politikak COVID-19aren garaian) azterketatik ateratakoak dira. COVID-19aren krisiari buruzko gogoetak iradokitzen du pandemiak errotik aldatu dituela arreta, zaintza eta laguntza eredu berrirako trantsizioa garatzeko baldintzak. Bigarren kapituluak gizarte-politiken izaerari eta trantsizioa gizarte-politiken ezaugarri nagusiei buruzko hausnarketa eskaintzen du. Hirugarren kapituluak Gizarte politiketako Sailaren 2021-2023 Ekintza Planaren 12 ardatzak aurkezten ditu 39 jarduketatan. Azkenik, jarduketa bakoitzaren fitxa teknikoak, gauzatze-kronogramaren proposamena eta 2021-2023 Ekintza Plana baliozkotzeko egindako kontsultetan lortutako adostasunarekin egindako balantzea aurkeztu dira eranskinean.

1. kapitulua

Covid-19aren pandemia: Ikasitako ikasgaiak

1.1. Sarrera

COVID-19aren krisiak hainbat erronka ekarri ditu gizarte-politikerara, hala nola sistemen koordinazioa, larrialdi-neurrien kudeaketa eta ikuskapena, inpaktuen ebaluazioa, berrikuntza pandemiak bultzatutako arreta-ereduetan eta teknologia digitalen erabilera intentsiboa. Horretaz gain, krisiak eragina izan du lurralde erakundeek bere larrialdia erakunde-ikuspegi batetik kudeatzeko duten gaitasunean (bitarteko urriak eta presio gero eta handiagoa). Eta, azkenik, eta zeharo garrantzitsua halaber, gizarte erantzukizuna eta pandemiak kolektibo kalteberenetan, hala nola adinekoen egoitzetan (eta haien familietan), laga dituen ondorio fisiko eta psikologikoen kudeaketa, COVID-19aren eragina bereziki dramatikoa izan baita horietan.

Kapitulu honetan azterlanaren emaitzak laburbiltzen dira: Gizarte Politikako Departamentuak (GFA) enkargatu duen “Las Políticas Sociales en tiempos de la COVID-19” azterlan independenteko emaitzak. Azterlana 2020ko uztailean, abuztuan eta irailean zehar egin da, metodologia kuantitatiboak (online inkesta) eta kualitatiboak (elkarrizketak eta lantegiak) konbinatuta. Azterlanean sistemako zenbait aktorek hartu zuten parte, esaterako gizarte politikak kudeatzen dituzten pertsonak, egoitzen kudeaketaren arduradunak eta Hirugarren Sektoreko erakundeak, adituek eta arlo soziosanitarioko profesionalak, gizarte zerbitzuen erabiltzaileekin eta horien familiekin batera.

Kapituluak hiru atal ditu. Lehen atalean, krisiaren elementu nagusiak deskribatzen dira, lau dimentsioren arabera: larrialdia, kudeaketa eta COVID-19aren krisiaren eraginak. Bigarren atalean, krisitik ikasitako irakaspenak aurkezten dira. Azkenik, hirugarren atalean, azken gogoeta batzuk ematen dira.

1.2. COVID-19aren krisia

1.2.1. Krisiak eragindako larrialdia

Aurrea hartzeko eta erreakzionatzeko gaitasuna. Sistemak aurrea hartzeko gaitasun ahula erakutsi du. Elkarrizketatutako pertsonak bat datoz, esaten dutenean ezen mehatxu sorren gaineko alerta jotzeko edo arrisku agerikoen eboluzioa ikusteko denbora errealeko alarma egokirik ezak zaildu egin duela, izugarri zaildu ere, krisiaren kudeaketa. Erreakzionatzeko gaitasuna ia-ia berehalakoa izan da (sistema arina eta moldagarria da), baina emaitzak ez dira eraginkortasun terminoetan, are gutxiago efizientzia terminoetan, bermatu.

Lidergorako gaitasuna. Krisia izaera epidemiologikoko arazo sanitariotzat interpretatzen da. Lidergo sistemikoa Osasun Publikoak hartu behar zuen bere gain, instituzioen arteko lankidetzarako bide egokiak zabalduz horretarako. Alabaina, agerian geratu da osasun sistema eta babes sozialeko sistema koordinatzeko gaitasuna ahula eta krisiari aurre egiteko desegokia izan dela.

1.2.2. Krisiaren kudeaketa

Osasun materiala eskuratzeko arazoak. Krisiaren kudeaketan identifikatutako zailtasun nagusiak izan dira EPI falta, instrukzio publikoen berankortasun eta heterogeneotasuna (protokolo kontraesanezko ugari), espazio fisikoak sektorizatze ezintasuna, langileen bajak, osasun langileak inguratzeko zailtasunak, eta familiekin komunikatzeko estrategia egokirik eza.

Komunikazio arazoak. Komunikazioak, barne zein kanpokoak eta Gizarte Politikako Departamentuaren zein lurralde erakundeena, erakutsi du ez daukala ez plataformarik ez tresna egoki eta koordinaturik krisiaren kudeaketa errazteko (nola informatu, nola jakintza partekatu eta zuzentzarauak nola aditzera eman). Familiekiko komunikazioak hasiera zaila izan zuen, harik eta teknologia digital berrien erabileraren bitartez normaldu zen arte.

Inklusio arazoak. Krisiak batez ere bi talde kaltetu ditu: adinekoak eta ezinduek, eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak. Arazo nagusia bi talde horiei bitartekoak bideratzeko lehenetsunak identifikatzea eta horien gainean erabakitzea izan da. Pertzepzio orokorra da adineko pertsonen lehenetsuna izan dutela krisialdian Gizarte Politiketako Departamentuarentzat, nahiz gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonak hainbat arazo dituzten eta pandemia baldintzetan laguntza eta arreta espezializatuak behar dituzten pertsonak izan.

Giza baliabideen arazoak. Pandemiaren lehen olatuan zehar identifikatutako zailtasun nagusietako bat giza baliabide kualifikaturik eza izan da (erizainak, gizarte langileak, medikuak, etab.). Horretaz gain, Hirugarren Sektoreko egoitza eta erakundeek mugak izan zituzten boluntarioak hartu ahal izateko, pertsona horiek zaintzako eta arretako jardueretan aritu ahal izateko aukera mugatzen duten lege hutsune zeharo zurrunen eraginez.

1.2.3. Krisiaren inpaktuak

Inpaktu ekonomikoa. Egoitzetan eta gizarte erakundeetan inpaktu ekonomikoa handia izan dela jotzen da, kostuak bere gain hartu baitzituzten larrialdian zehar (langile kostuak barne). Hala eta guztiz, egoitzek ez dute uste bere jasangarritasun ekonomikoa arriskuan dagoenik, nahiz uste duten agian gora egin beharko duela kopagoak, funtsezkoak ez diren zerbitzu batzuk murriztearekin batera.

Inpaktu psikologiko eta emozionala. Tristezia, beldurra, autonomiaren mugatzea, dolu galaraziak edo egoiliarra/familia interakzioaren etena detektatu dira krisialdian zehar arretaren kalitateari eragin dioten elementuen artean. Pertsona, egoitza, familia eta langileei euskarri psikologiko eta emozionala eman beharra gai garrantzitsu gisa agertu da.

Arreta ereduaren gaineko inpaktua. Krisiak arreta- eta zaintza-ereduaren ahuluneak erakutsi ditu. Sistemako eragileek egindako ohartarazpenetako baten arabera, gerta daiteke adinekoentzako egoitzak medikalizatzea, hau da, osasun ereduaren sakontzea eredu psikosozialean sakondu baino lehen. Ohartarazpen hori baliozkoa da foru-baliabide guztientzat. Lurralde-eragileen ikuspegitik, ezinbestekoa da aurrera egitea gizarte-zerbitzuen pertsonalizazioan (erabiltzaile mota guztientzat) eta zaintza-ekosistemen sustapenean. Ekosistema horiek gizarte-zerbitzuek eta zerbitzu soziosanitarioek hainbat mailatan (udal- zein foru-mailetan) sostengatutako arretaren, zainketen eta laguntzen ikuspegi eta kudeaketa sozial eta soziosanitarioa errazten dute.

Antolaketa mailako inpaktua. Krisiak aldarazi egin ditu erakundeen kudeaketa ereduak, bereziki egoitzenak. Espazioen kudeaketa, langileen kudeaketa, kudeaketa ekonomikoa, jakintzaren kudeaketa eta familia eta komunitatearekiko harremanen kudeaketa dira berehala berregituratu behar diren dimentsioen artean aipatuak.

Inpaktu teknologikoa. Krisiak eta mugikortasunaren eta senideen bisiten murrizpenak teknologia digitalen erabilera bultzatu dute, erabiltzaileak bere familiekin konektatzeko unean. Ustekabean, teknologiak larrialdi baldintzetarako komunikaziorako aukera alternatibo gisa indartu dira. Oraingo erroka egoitzen eta erakunde sozialen sektorearen eraldaketa digitala bultzatzea da.

Inpaktu politiko-instituzionala. Pandemiak harreman instituzional eta sozialak eraldatu ditu. Gobernantza instituzionalaren (instituzio publikoak – erakundeak) eta gobernantza sozialaren (instituzio publikoak – erabiltzaileak) eredu aldatzeko beharrari buruzko pertzepzio zabala dago. Eredu berriak eragileen integrazio handiagoan oinarritu beharko du, erabakiak hartzeko prozesura begira, eta ikaskuntza- eta ezagutza-sare eraginkorra eratu beharko du eremu soziosanitarioan. Aldaketa horrek, osasun sistemaren eta gizarte zerbitzuen sistemaren arteko koordinazio handiagoz gain (maila aniztasuna, lokala, forala eta autonomikoa), erabiltzaileen integrazio handiagoa eskatzen du, arreta- eta zaintza-eredu berriak diseinatzea eta garatzera begira.

1.3. Ikasitako ikasgaiak

1. ikasgaia: Aurrea hartzea. Sistemak aurrea hartzeko duen gaitasuna arazoa izan da, eta maila epidemiologiko zein psikosozialeko erantzun eraginkor eta efizientearen plangintzari eragin dio. Ikaskuntza gisa azaleratu da joeren mapaketa (global eta lokala) eta analisisa egiteko tresnak garatzeko beharra; tresna horiek gai izan behar dute arriskuak identifikatzeko eta kontingentzia planak diseinatzeke.

2. ikasgaia: Koordinazioa. Osasun sistemaren eta gizarte babeseko sistemaren arteko koordinazioa ahula izan da, eta horrek eragin egin dio sistema soziosanitarioak pandemiak eragindako larrialdiari aurre egiteko erakutsi duen gaitasunari. Ikaskuntza gisa azalatu da lantaldeak eta lurralde koordinazioko sareak sortzeko beharra; horiek plataforma arinak izan behar dute, sistema soziosanitarioaren koordinazioa errazteko.

3. ikasgaia: Komunikazioa. Komunikazioa, politiken, arreta eta zaintzarekin lotutako erakundeen, erabiltzaileen eta haien familien eta, oro har, herritarren artekoa, akats garrantzitsua izan da, nabarmena, eta krisia kudeatzeko gaitasunari eta krisiaren ulermen sozialari eragin die. Ikaskuntza gisa azalatu da komunikazio sozialeko plan egokiak garatzeko beharra, hain zuzen informatzeko, jakintza elkarrekin sortzeko eta sistemako agenteen artean –erabiltzaileak barne– konponbideak transferitzeko; horretaz gain, komunikazio bide berriak sortu behar dira, arinak eta egokiak, zenbait publiko interesdun motarentzat.

4. ikasgaia: Arreta-, zaintza- eta laguntza-eredua. Krisiak agerian utzi ditu arreta-, zaintza- eta babes-ereduaren ahuleziak eta indarguneak. Prozesu horretatik ateratzen diren ikasgai nagusiak hiru ardatzetan bil ditzakegu. Lehen ardatza arreta sanitarioaren eta zaintza sozialaren arteko tentsioari buruzkoa da. Bigarrena zaintza-espazioei buruzkoa da, izan ere zaintza ez da egoitzetara mugatzen, beste espazio batzuk ere inplikatzen baititu, hala nola etxebizitzak, bazterketa egoeran dauden pertsonak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak, etab. Hirugarrenak erakusten digu zaintzaren pertsonalizazioa zein mailatan gara daitekeen hainbat eremutan eta hainbat profiletarako.

5. ikasgaia: Ebaluazio eredua. Krisiaren monitorizazio sistemikoa pandemiaren lehenbiziko olatuan falta izan den gauza bat izan da. Prozesu horretatik ikasgai bikoitza ateratzen da. Alde batetik, monitorizazio epidemiologikorako sistema eraginkorrak inplementatu behar dira, osasunaren esparruan erabakiak hartzeari loturik. Bestetik, partaidetza sistemak garatu behar dira, foru sareko zentroetako arduradunak, profesionalak eta erabiltzaileak (familiak barne) erakundeen ebaluazio eta erabaki sistemetan integratu ahal izateko.

6. ikasgaia: Finantzaketa eredua. Krisiak inpaktu ekonomiko handia izan du, eta horrek baldintzatu egiten du arreta ereduak, hau da, gizarte babeseko sistemaren birusa sartu izanaren ondoriozko arreta ereduak aurre egiteko baliabide ekonomikoak kaptatzea. Inpaktu horrek egoitza-zentroen eta gizarte-ostatuak beste baliabide batzuen etorkizunari, hirugarren sektoreko erakundeak eta gizarte- eta komunitate-zerbitzuen berezko gaitasunari eragiten die. Gizarte zerbitzuetako eta haien ekosistemetak kudeaketa-ereduak eta finantzaketa-ereduak hobetzeko beharra sortzen da ikaskuntza gisa, eta errealitate berrira egokitu behar dira.

1.4. Azken kontsiderazioak

Gipuzkoako egoitza-zentroetan COVID-19aren gainean izandako inpaktuari buruzko azterketak gizarte-zerbitzuen indarguneei eta ahuleziari buruzko balantze bat eskaintzen du. Lau gogoeta egin daitezke krisiaren balantze gisa eta COVID-19 pandemian zehar politika sozialetarako ikasitako irakaspenen balantze gisa.

Arreta- eta zaintza-eredua eraldatzearen garrantzia

Covid-19 pandemiak agerian utzi ditu arreta- eta zaintza-ereduaren ahuleziak eta indarguneak. Dimentsio honek lau gai nagusiri egiten die erreferentzia, eta horietan ereduak indartu behar da: a) Erabiltzaileen, familien, profesionalen eta kudeatzaileen integrazioa hobetzea arretari eta zainketei buruzko erabakiak hartzerakoan; b) etika-kode berriak edo berrikusiak modu eraginkorrean sartzeko kasu konplexu eta eztabaidagarrietan arreta eta zainketak kudeatzeko egoitza-zentroetan eta beste ostatu-mota batzuetan (hala nola eguneko zentroetan, anbulatorioetan, etab.); c) Egoitza-azpiegiturak hobetzea, zainketa pertsonalizatura egokituta, egoitza-zentroak eralda daitezkeen bultzatuz, zainketa-ekosistema gisa (komunitatearen parte-hartzea barne); d) profil profesional espezifikoak erakartzeko eta atxikitze programak bultzatzea (esaterako, erizaintzako langileak), bai eta karrera profesionalak garatzea ere, gizarte-zerbitzuen sektorea erakargarriagoa izan dadin.

Elkarlaneko gobernanzaren garrantzia

Covid-19 pandemiak agerian utzi du elkarlaneko gobernanzaren garrantzia. Dimentsio honek gizarte-politikak indartu behar diren hiru gai nagusiri egiten die erreferentzia: a) Maila anitzeko koordinazio soziosanitarioa hobetzea. Hau da, osasun-zerbitzuen, gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu komunitarioen arteko koordinazioa, bai udal-, foru- eta autonomia-mailan; b) auzo-erakundeak eta auzo-sareen arteko koordinazioa indartzea, komunitate-mailako zainketak indartzeko, gizarteratze-prozesuetan arreta jarrita; c) Erabiltzaileak gizarteratzeko mekanismo berriak bultzatzea, eta kolektibo kaltebera guztien (ez soilik adinekoak) gizarteratzeko guneak eta tresnak erraztea.

Ebaluazio gaitasunak

Covid-19 pandemiak agerian utzi ditu ebaluazio-sistemen ahuleziak. Ebaluazioa hiru dimentsio nagusiri buruzkoa da: a) Aurreratzeko gaitasuna larrialdi-egoeretatik arazoak eta nahi ez diren inpaktuak aurreikusteko eta gizarte-kontingentziako planak diseinatzeko sistemaren ahuleziei dagokie; b) Arretaren eta zaintzen kalitatea ebaluatzeko gaitasuna (ongizate materiala, fisikoa eta psiko-soziala), dimentsio etiko berriak barne, bai eta berritzeko gaitasuna ere, kalitatearen osagai nabarmen gisa; c) lurralde-arreta monitorizatzeko gaitasuna eta eredu berrirako trantsizioa. Eskualde eta udalerrri txikietatik igartzeko abiadura kontuan hartu beharreko dimentsioa da.

Gizarte-zerbitzuen iraunkortasuna birdefinitzeko beharra

Covid-19 pandemiak eragin ekonomiko handia utzi du gizarte-zerbitzuetan eta foru-baliabideen sarean. Gizarte-zerbitzuen iraunkortasunaren gaia etorkizuneko gai nagusi gisa agertu da. Hala, dimentsio horri dagokionez, hainbat alderdi nabarmentzen dira: a) langile-ratioen eta arretaren kalitatearen arteko harremanak eredu iraunkor bat izan behar du, arretaren kalitatea, lan-baldintzen hobekuntza eta etorkizunean baliabide publiko, pribatu eta sozialen fluxua bermatuko dituen; b) eredu- eta arreta-aldaketa iradokitzen duten esperientzia pilotuei eta gizarte-berrikuntzei buruzko kostu-eraginkortasuneko azterlanak egitearen garrantzia; c) Sistema pribatuaren prestazioen eta erabiltzaileen parte-hartzearen inguruko eztabaida irekitzearen garrantzia.

Gizarte-komunikazioaren garrantzia

Azkenik, pandemiak agerian utzi du gizarte-komunikazioaren garrantzia. Dimentsio honek hiru gai nagusi planteatzen ditu: a) Gizarte politiken xede-biztanleriarekiko komunikazioa hobetzearen garrantzia. Defizita izan da hori Covid-19 krisian; b) Erabiltzaileen, familien, profesionalen eta erakundeen arteko komunikazioak hobetzeko tarte handia du, ez baitago erabiltzaileen profilen araberako komunikazio-tresna integralik; c) komunikazio-kanpaina erregularrak egitearen garrantzia, arretaren eta zaintzen ereduaren berrikuntzei eta etengabeko hobekuntzari buruzko informazioa emateko (trantsizioa behar bezala jakinarazi behar da).

2. kapitulua

Trantsizioko Gizarte Politikak

2.1. Sarrera

Kapitulu honek gizarte-politiken izaerari buruzko hausnarketa eskaintzen du. Gizarte-politikek gizarte-ekitaterik eza murriztea eta gizarte-kohesioa indartzea helburu duten ikuspegi, programa eta jardueri egiten diete erreferentzia. Hala ere, arazo sozialak konplexuak (nahasiak) dira, dimentsio anitzekoak direlako, sarritan egiturazkoak, data luzekoak, eta konponbidea kontraesankorra eta osatugabea izan ohi da, ez dagoelako soilik gizarte-zerbitzuen ekintzaren mende. Izan ere, gizarte-arazoak zailak dira definitzen eta ezartzen zer jotzen den irtenbide egokitzat eta noiz lortu den konponbide hori. Gizarte-premien izaera dinamikoak arazoak eta horiek konpontzeko alternatibak etengabe birdefinitzera behartzen du, baliabide publikoak, pribatuak eta sozialak egokituta, gehienetan urriak eta mugatuak.

Politika sozialak hiru dimentsiotan hedatzen dira, eta horiek gaitasun eta baliabide desberdinak eskatzen dituzte, hau da: a) kontingentzia sozialarekin lotutako politika sozialak, kontingentzia soziala ezusteko arazo sozial gisa ulertuta, zeinarentzat ez baitago erantzuteko gaitasun garaturik eta esku hartzeko tresna frogaturik; b) politika sozialen xedebiztanleriaren bizi-kalitatea bermatzearekin eta egonkortzearekin lotutako politika sozialak. Esku hartzeko programak, jarduerak eta tresnak dira, eta gizartearen eskaeren aldaketa gehitzaileei egokitzeko balio dute; c) berrikuntzekin lotutako gizarte-politikak, hau da, etorkizunari buruzko ikuspegiak dituzten eta gizarte-arazoei aurrea hartzeko erantzunak eskaintzen dituzten programak eta jarduerak. Gizarte-politiken hiru dimentsio horiek elkarri lotuta daude gizarte-politiken kudeaketan. Gizarte-politiken dimentsio horietako bakoitzaren dinamikak eta pisuak eraten dituzte gobernu-estiloa eta gizarte-arazoen konplexutasunari erantzuteko modua, intentsitatea eta gaitasuna.

COVID-19aren krisia inpaktu sozial handiko kontingentzia bat da, eta gizarte zerbitzuen sistema osoaren funtzionamendu modua aldarazi du. Krisi soziosanitarioak, bere lehen unean eta larrienean, arreta eta zainketen baldintzak eraldatu zituen hilabete gutxi batzuen buruan, eta gizarte-politikek krisiari aurre egin behar izan zioten baliabide urriekin, gobernantzaren kalitate mugatuarekin, kudeaketa-ahalmenaren mugekin eta gizarte-kontingentzia handiarekin. Izan ere egonkortzeko politika sozialak estandarrek dira, indarrean dagoen araudian oinarrituak, eta normaltasun edo egonkortasun sozialeko baldintzetarako diren kalitate eta eraginkortasun irizpideekin funtzionatzen dute. COVID-19aren krisiak sorrarazitako baldintza berrietan, egonkortzeko politika sozialek oso gaitasun txikia izan zuten aldaketara egokitzeko. Horien ordez, kontingentziako politikek eta berrikuntzako politikek lekua irabazi dute. Lehenek berehalako eta COVID-19aren uneko krisiari egokitutako erantzuna eman behar dute. Bigarrenak erantzun eraldatzaile eta epe luzekoa eman behar dute, COVID-19aren osteko gizarte laguntza- eta zaintza-ereduek eskatzen duten paradigma-aldaketa kudeatu ahal izateko.

Trantsizioko Gizarte Politikek gizarte-politiken kontzeptualizazio berria adierazten dute. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak egin duen ahalegin bat da Etorkizuna Eraikiz ereduaren esparruan arreta, zaintza eta laguntzen ereduaren paradigma-aldaketa kudeatzeko. Horrela, trantsizioko gizarte-politikak lau prozesu espezifiko bultzatzen dituzten programen eta jardueren multzotzat har daitezke: a) politikak hausnartzeko, esperimintatzeko eta gomendatzeko guneak sortzea, horietan erakundeek, erabiltzaileek, profesionalek eta gizarte-politiketako adituek parte hartzen dutelarik; b) ikuspegi esperimentaletan oinarritutako gizarte berrikuntzako proiektuak diseinatzea eta ezartzea (esperimintazio taldeak, kontrol taldeak, produktu, zerbitzu eta metodo/prozesu berriak sortzea); c) tokiko zaintza ekosistemak garatzea (arreta eta zaintza ibilbide berriak, gizarte zerbitzuak osasun zerbitzuekin eta zerbitzu komunitarioekin lotzen dituztenak, zerbitzu pertsonalizatuak eskaintzearren), d) ebaluazio sareak diseinatzea eta aplikatzea, inpaktu soziala eta zaintza eredu berri bateranzko trantsizioa monitorizatzeko.

2.2. Hiru politikak gizarte politiketan

Kapitulu honen sarrerako atalean nabarmendu denez, gizarte-politikek hiru politika motaren dinamika konbinatua adierazten dute: a) kontingentziako gizarte-politikak, b) egonkortasuneko gizarte-politikak, eta c) berrikuntzako gizarte-politikak. Hiru politika horiek hiru motatako gaitasun instituzionalak eskatzen dituzte: arintasuna, egokitapena eta aurrea hartzea.

2.2.1. Kontingentziako gizarte politikak: arintasuna

Gizarte politiken lehen dimentsioa kontingentziaren kudeaketari buruzkoa da. Gizarte politikek diharduten testuinguru sozial guztietan kontingentziak sortzen dira, hau da, espero gabeko, are ezin aurreikusizko gertaerak, populazioen bizitza sozialari, bai biztanleriaren parte handi bati bai kalteberak diren talde espezifikoari, eragiten diotenak; eta talde espezifiko horiek izaten dira gizarte politiken lehentasuna, erresilientzia gaitasun txikiko taldeak direlako eta kontingentzia sozial, ekonomiko edo natural bat gertatzen denean horren ondorioak jasaten dituzten aurrenak izan ohi direlako.

Gertakizun baten larrialdi/kontingentzia sozialaren aurrean, gizarte politiketatik espero da erantzun zehatza, arina eta nahiko egokia ematea, eragindako pertsoneri epe laburrean bizi eta segurtasun baldintza egokiak bermatzeko, larrialdiaren inpaktu soziala edozein izanik ere. Egonkortasun sozialeko baldintzetan, gizarte zerbitzuen kudeaketa gai da larrialdi/kontingentzia sozialak bere gain hartu, konpondu edo arintzeko. Zeren eta egonkortasun baldintzetan kontingentziak mugatuak izaten baitira, noizbehinkakoak, eta eskura dauden bitartekoekin bideragarriak. Hala ere, gizarte-kontingentzia batek eragin handia du gizartean, ekonomian eta erakundeetan, eta, aldi berean, gizarte-talde kalteberei eragiten die, eta gizarte-talde horiek baino baldintza hobetan zeuden beste talde batzuk bortxatzen ditu. Hala, gizarte-premiak eta -eskaerak ugaritu egiten dira, premiazkoak baitira eta erantzun bizkor eta eraginkorrak behar baitituzte, baliabide mugatuak eta erreakzio-denbora mugatuak esparruan.

2.2.2. Egonkortzeko gizarte politikak: egokitzapena

Gizarte politiken bigarren dimentsioa egonkortasun garaietako gizarte programa eta zerbitzuen kudeaketari buruzkoa da. Baldintza hauetan, gizarte zerbitzuek bere ezaugarriak, eginkizunak eta erantzukizunak arautzen dizkien arau esparru batean oinarrituta funtzionatzen dute. Hala, gizarte zerbitzuen kudeaketa modu burokratizatuan (protokolizatuan) eramaten da, araudiari egokitutako euskarri teknikoak eta bitartekoak baliatuta. Zerbitzu protokolizatu eta, horrenbestez, aurreikusgarriak dira. Aurreikusgarritasun eta estandarizazioa gizarte zerbitzuen kalitate ezaugarrietako bat da. Dena den, pertsona edo talde kalteberen bizi baldintzak parametro jakin batzuen barnean mugitzen dira. Gauzak horrela, gizarte zerbitzuek talde kalteberen bizi baldintzak bizi kalitatearen estandar (dinamiko) baten arabera «egonkortzeko» eginkizuna dute.

Jarduketa honek ikaskuntzako plataforma digital bat diseinatu eta garatzen du. Plataforma horrek egoitza zentroak, eguneko zentroak eta anbulatorioak konektatzen ditu, prestakuntza, ikaskuntza eta jardunbide egokien trukea errazteko, hirugarren sektoreko antolakundeak barne hartuta.

 - **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

17.1.- Ikaskuntzako Plataforma Digitala diseinatzea eta abiaraztea, egoitza zentroak elkarren artean konektatzeko eta, horrela, besteak beste, ezagutza eta jardunbide egokiak trukatzeko eta prestakuntza digitaleko eta sareko programak garatzeko.
- ✓ **18. jarduketa. Etxe eta egoitzetako digitalizazioa bultzatzea**

Jarduketa honek teknologia digitalen, domotikaren, adimen artifizialaren, Big Dataren eta beste teknologia batzuen erabilera bultzatu eta errazten du, etxeko eta egoitzetako zaintzen digitalizazioa sustatzeko xedez, betiere ADINBERRI, Etorbizuna Eraikiz, Gizarte Politiketako Departamentuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko beste instantzia batzuek finantzaturako proiektu esperimentalen bitartez.

 - **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

18.1.- Teknologia digital berriak, adimen artifiziala, domotika eta zaintzekin lotutako beste teknologia batzuk garatzea eta bultzatzea, proiektu esperimentalak eta berrikuntzakoak finantzatzuz, etxeko nahiz egoitzetako zaintzak digitalizatzeko.

7. ardatza: Komunikaziorako eta parte-hartze sozialerako estrategia bat ezartzea

Ardatz honen helburua da komunikazio eta sentsibilizazio estrategia bat garatzea trantsizioko zaintza politiken eta politika sozialen inguruan, Gipuzkoa 2030 Agendaren politiken eta garapenaren ikuspegiak eta emaitzak komunikatzeko gai izango dena.

- ✓ **19. jarduketa. Trantsizioko Gizarte Politikei buruzko Web Orrialdea abian jartzea (Zaintzen Lurraldea)**

Jarduera honen helburua da webgune bat diseinatzea eta garatzea, Gipuzkoa 20>30 Agenda gauzatzearen bidez lortutako kontzeptuak, kasuak eta emaitzak bilduko dituen. Webgunearen helburua da batez ere gizarte-politiken erabiltzaileengana, erakunde laguntzaileengana eta udaletara bideratutako emaitzen komunikazioari euskarri digitala ematea, iradokizunak egin ahal izan ditzaten. Era berean, Atariaren bidez, zainketen arloko profesionalen lanaren balioa azpimarratuko da, baita eskuragarri dauden laguntza-baliabideei buruzko informazioa ere.

 - **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

19.1.- Trantsizioko Gizarte Politikei (Zaintzen Lurraldea) buruzko Web Orrialdea diseinatu eta abian jartzea, zeinak jaso, integratu eta jakinarazten baititu Gipuzkoa 20>30 Agendaren produktuak, gidak eta emaitzak gizarte-politiken eremu guztietarako (hautzaroa eta nerabezaroa, gizarteratzea, mendekotasuna eta zahartzea, indarkeria matxista).
- ✓ **20. jarduketa. Zaintzen alorreko komunikazio kanpaina bat abiaraztea**

Jarduketa honen helburua da herritarrei informazioa ematea Gipuzkoa 20>30 Agendaren garapenari buruz: Trantsizioko gizarte politikak. Gipuzkoa 20>30 Agenda gauzatzearen inguruko ikuspegiari, edukiari eta aurrerapenei buruzko informazioa ematen du komunikazio kanpainak.

 - **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

20.1.- Komunikazio kanpaina. Gipuzkoa 20>30 Agendaren komunikazio kanpaina bat prestatu eta egitea, funtsezko mezuak, audientziak, euskarriak (bideoak, newsletterrak) eta emaitzen ebaluazioa definituz.

20.2.- Gizonak zainketaren arloan ahalduzko programa bat abian jartzea

✓ **21. jarduketa. Partaidetzako sentsibilizatorako programa bat ezartzea**

Jarduketa hori Gipuzkoa 20>30 Agendaren esparruan garatzen da: Trantsizioko gizarte politikak. Partaidetzako Sentsibilizazio Programak hainbat tailer mota garatzen ditu, eta tailer horietan erabaki politikoak hartzeko ardura dutenek parte hartzen dute, zehazki, Gizarte Politiketako Departamentuak, hirugarren sektoreko antolakundeetakoak, enpresa teknologikoetakoak, eta egoitza zentroetakoak; halaber, Gizarte Politiketako Departamentuaren gizarte baliabideei lotutako kolektibo, erabiltzaile eta familiek ere parte hartzen dute.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

21.1.- Sentsibilizazio Programa bat diseinatu eta gauzatzea. Programak Trantsizioko Gizarte Politiken inguruan sentsibilizatzen du, eta hainbat publiko motara bideratzen da (enpresak, hirugarren sektoreko erakundeak, erabiltzaile taldeak, udalak, OPZ, etab.), Gipuzkoa 20>30 ko Agenda komunikatu eta garatzeko.

✓ **22. jarduketa. Gizarte- eta komunitate-boluntariotza sustatzea**

Jarduketa honen helburua da boluntariotza eta herritarren parte-hartzea sustatzea, komunitatearen garapenerako eta kohesiorako, eta behar duten pertsonen babesa eta laguntza emateko. Ekintza boluntarioaren sustapena gizarte-boluntariotzako agentzien eta programen bitartez bideratuko da.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

22.1.- Gizarte Boluntariotza sustatzeko, sentsibilizatzeko eta erakartzeko programa bat abian jartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

8. ardatza: Trantsizioko agendaren diseinua

Ardatz honen helburua da trantsizio agendak diseinatzeko mekanismoak bultzatzea gizarte politiken arlo guztietarako. Ardatz honek zenbait jarduera garatzen ditu, Gipuzkoako gizarte zerbitzuen mapari, Gipuzkoako gizarte zerbitzuen mapa hedatzeari, gizarte politiken etorkizunari buruzko Think Tank bat garatzeari, elkarrizketa zibileko espazioak sortzeari eta agendak diseinatzeko kontraste taldeei lotuta.

✓ **23. jarduketa. Parte hartze eredia garatzea trantsizio politikak elkarrekin diseinatzeko**

Jarduketa honen helburua da trantsizioko (orainaldia eta geroa) gizarte politiken diseinuan funtsezkoak diren lurralde eragileek parte hartzeko guneak diseinatzeko eta garatzea, arreta eta zaintzako eredu berri bateranzko trantsizio agendak egituratzeko helburu estrategikoarekin.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

23.1.- Ongizate Estatuaren Etorbizunari buruzko Deliberazio Taldea diseinatzeko abian jartzea Etorbizuna Eraikizen Think Tank-ean.

23.2.- Gipuzkoa 2030 Agenda eta Ongizate Estatuaren Etorbizunari buruzko Liburu Zuria (Think Tank-aren emaitza) elkarrekin diseinatzeko eta baliozkotzeko kontraste taldeak diseinatzeko eta abian jartzea.

✓ **24. jarduketa: Esparru sozialeko erakundeekin elkarrizketa soziala sustatzea**

Jarduketa honen helburua da Gipuzkoako elkarrizketa zibileko mahaia sortzea eta garatzea, gizarte politikak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko foro bat egituratuko duena. Elkarrizketa sozialeko mahaiaren antolaketari dagokionez, Gizarte Politiketako Departamentuaren eskumeneko arazo sozial batean inplikaturako alderdien arteko elkarrizketa mekanismoetan oinarritutako eta gizarte politiken deliberazio ebaluazioaren arabera auditoretza sozialaren antzekoa da.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

24.1.- Gipuzkoako Elkarrizketa Zibileko Mahaia onartzea eta abian jartzea, hirugarren sektorearen eta Gizarte Politiketako Departamentuaren arteko elkarrizketa sustatzeko xedez, betiere erabakiak hartzeko eta gizarte politikak diseinatzeko asmoz.

✓ **25. jarduketa. Egoitza arretako ostatu en etorkizunari buruzko hausnarketa.**

Jarduketa honen helburua da egoitza zentroetako arreta eta zaintza ereduaren etorkizunari buruzko hausnarketa egitea. Gizarte Politiketako Departamentuak Adinberri Fundazioarekin eta Kabia erakunde autonomoarekin lankidetzan bultzatutako hausnarketa hori egiteko, teknika hauek erabiltzen dira: etorkizunen diseinu parte hartzailea, datuen eta joeren analisisa eta deliberazio ebaluazioa. Prozesuan hainbat kontraste taldek parte hartzen dute (erabiltzaileak, egoitzen kudeatzaileak, adituak, gizarte politikekin eta osasun politikekin lotutako pertsona teknikoak, besteak beste). Jarduketa horren emaitza gisa, hainbat gomendio jasotzea espero da, egoitza-eredu berri bateranzko trantsizioa sustatzeko printzipioak eta jarduketak finkatu ahal izateko. Eredu berri horrek honako hauek izango ditu helburu: arreta eta zaintza pertsonalizatzea, bizi-kalitatea hobetzea, erakunde-kudeaketa optimizatzea, langile-ratioak hobetzea, berrikuntza bultzatzea, komunitate-integrazioa eta kalitatea ebaluatzeko eredu berriak aplikatzea.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

- 25.1.- Gipuzkoako egoitza-zentroei buruzko diagnostiko estrategiko bat egitea, egoitza-eredu berrietarako trantsizioa bultzatzeko indarguneak, ahuleziak eta aukerak identifikatzeko.
- 25.2.- Bizitegi-eredu berri baterako trantsizioa sustatzeko ibilbide-orri bat egituratzea, diagnostiko estrategikoan sortzen ari diren egoitza-zentroen tipologiaren arabera. Testuinguru horretan sartzea KABIAREN egoitza-zentroen eta titulartasun publikoko zentroen berezitasunak.
- 25.3.- Esperientzia pilotuak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, esperientzia pilotuak probatu, dokumentatu eta mailakatu ahal izateko, Gipuzkoako egoitza-zentroetan arreta- eta zaintza-eredu berrirako trantsizioa modu pragmatikoan bultzatzeko.

9. ardatza: Ardatza: trantsizioen agenda garatzea

Ardatz honen helburua trantsizioen agenda inplementatzea da. Horretarako abiapuntua izango diren jarduerak hainbat arlo jorratuko dituzte, hala nola berrikuntza eta esperientziazko sustatzea, eta gizarte politika guztietan arreta eta zaintza eredu berriak garatzea, horien artean jasoz, esaterako, gizartratze plana, haurren babesgabetasunaren arreta plana, indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko eredu berriak, eta adineko pertsonen etxean bertan arreta eta zaintza emateko eredu berriak.

✓ **26. jarduketa. Berrikuntza eta esperientziazko soziala sustatzea**

Jarduketa honen helburua da ikuspegi ekosistemikoa duten eta elkarlaneko gobernantzan oinarritzen diren gizarte berrikuntzako proiektuak aurkezteko deialdia egitea. Berrikuntza sozialeko proiektuen finantzaketaren bitartez esperientziazko soziala finkatu nahi da eta, halaber, produktu, zerbitzu eta metodo prozesu berrien diseinua sendotu nahi da, zaintzen eredu berrirako trantsizioa errazte aldera.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

- 26.1.- Berrikuntza sozialeko proiektuak finantzatzeko laguntza lerro berri baten oinarriak onartzea.
- 26.2.- Onartzea 2021, 2022 eta 2023ko laguntza deialdiak, eta dagozkien laguntzak ematea.

✓ **27. jarduketa. 2030 Gipuzkoa Zaintza Lurraldea estrategia hedatzea**

Jarduketa honen helburua da Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030 estrategia diseinatzea eta hedatzea, lurralde mailan iraupen luzeko zaintza politiken garapen integralera bideratuta, honako alderdi hauek integratuz: zaintzen eredu berrien garapena etxean, egoitzak zaintzen ekosistema gisa ulertuta, eta zaintzei eta laguntzei lotutako beste proiektu pilotu batzuk, estrategikotzat jotzen direnak.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

- 27.1.- Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030 estrategia diseinatzea eta hedatzea.

✓ **28. jarduketa. Haurren babesgabetasunaren prebentziorako eta arretarako plan berria hedatzea**

Jarduketa honen helburua da haurren babesgabetasunaren prebentziorako eta arretarako plan berri bat diseinatzea eta hedatzea (babesgabetasun arriskua, babesgabetasun arina, babesgabetasun larria), adingabearen bizi kalitatea hobetzera bideratutako estrategiak erabiliz: larrialdiko harrera, egoitza harrera, familia harrera eta adopzioa.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

28.1.- Haurren babesgabetasunaren Prebentziorako eta Arretarako Plan berria diseinatzea eta hedatzea

✓ **29. jarduketa. Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko eredu integral berria hedatzea**

Jarduketa honen helburua da eredu integral berri bat diseinatzea eta hedatzea. Eredu horrek indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko ibilbide bat definitzen du, ikuspegi feminista batean oinarritutako ikuspegi berri bat txertatuta, emakume biktimak ahaldunduko dituen beren kalteberatasun egoeratik ateratzeko. Ereduak berriro definitzen ditu indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako eta seme-alabentzako aholkularitza juridikoko, arreta psikosozialeko, harrera-zerbitzuko eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzuak. Gizarte baliabide horren plangintza, jarraipena eta ebaluazioa hobetzeko jarduketak garatzen dituen plan batean egituratzen da ereduak.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

29.1.- Indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko eredu integral berria diseinatzea eta hedatzea.

29.2.- Indarkeria matxistaren biktimei arreta integrala emateko zentro berria eraikitzea eta irekitzea.

✓ **30. jarduketa. Gizarte Inklusioko Plan berria hedatzea**

Jarduketa honen helburua Gizarte Inklusioko Plan berria diseinatzea eta hedatzea da. Plan horrek gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko ibilbide berriak definitzen ditu. Planak gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak ekonomikoki gizarteratzeko aukera berriak sortzea bultzatzen du, lurralde politiken zeharkakotasuna indartzea (politika soziosanitarioekiko eta beste politika batzuekiko [etxebizitza, adibidez] koordinazioa hobetuz) eta gizarte inklusioari buruzko komunikazio eta sentsibilizazio estrategia bat garatzea, herritarrek inplikatu.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

30.1.- Gizarte inklusioko plan berria diseinatzea eta hedatzea

✓ **31. jarduketa: Gipuzkoan adimen eta garapen desgaitasuna duten pertsonen parte hartzea eta bizi kalitatea babesteko eta sustatzeko eredu berria**

Ekimen honen helburua da desgaitasun intelektualaren sektoreko erakundeek jarduketa esparru berri baten inguruan hausnartzea, Gipuzkoan pertsona horien eta haien familien parte hartzea eta bizi kalitatea babesteko eta sustatzeko eredu bat identifikatzeko eta defendatzeko, bai eta haien iraunkortasunean aurrera egiteko beharrezko elementuei buruz ere. Gogoeta horren esparruan, pertsonen eta haien familiei arreta emateko, babesteko eta laguntzeko zerbitzuak eta programak garatuko dira, bai Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan identifikatutako zerbitzuetan, bai beste zerbitzu eta jarduketa berritzaile batzuetan, premia berriei aurre hartzeko. Halaber, gizarte partaidetza, herritartasun aktiboaren erabilera eta interes orokorreko beste gizarte jarduketa batzuk sustatuko dira, pertsona horien gizarteratzea eta aukera berdintasuna lortzeko.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

31.1.- Gipuzkoan adimen eta garapen desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien parte hartzea eta bizi kalitatea babesteko eta sustatzeko ereduaren dokumentua idaztea.

31.2.- Adostutako neurriak hedatzea eta parte hartze bidezko ebaluazioa egitea, erabiltzaileak, familiak eta sektoreko erakundeak barnean hartuta.

✓ **2. JARDUKETA: Bakardadeen aurrean lurralde estrategia bat diseinatzea eta hedatzea**

ADINBERRI Fundazioaren gidaritzapean, Gipuzkoako bakardadeei aurre egiteko estrategia partekatu bat sortu nahi da, Gipuzkoako Lurralde Historikoan lan egiten duten tokiko entitateen eta eragile nagusien lankidetzarekin. Adinekoei eta zahartze prozesuei erreparatuko zaie, baina ez bakarrik edo modu baztertzailan.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

32.1.- Bakardadeen aurreko Gipuzkoako Estrategia idatzi eta horren inguruko adostasuna lortzea, modu parte hartzailean.

32.2.- Estrategia zabaltzea eta monitorizatzea.

10. ardatza: Zainketa-eredu berri bat garatzea

Ardatz hau zerbitzuetan eta erakundeetan zentratutako eredu batetik pertsonetan eta harremanetan zentratutako eredu bateranzko aldaketa bultzatzea ahalbidetuko duten jarduera-multzo baten garapenari dagokio. Helburu horrek proposatzen du bizitzan zeharreko zainketa integral, koordinatu eta zeharkakoaren garapena bultzatzea, prebentzioan,

zainketarako tokiko ekosistemen sustapenean, komunitate-laguntzan eta etxeko zaintzan oinarrituta, lehenetsun gisa, pertsona kalteberei, ahulei eta/edo mendetasun-egoeran, gizarte-bazterkerian edo babesgabetasunean daudenei edo egoera horretan daudenei zuzendutako zentroetako zaintza ahaztu gabe.

✓ **33. jarduketa. Gizarte-zerbitzuetan arreta, zaintza eta laguntzak pertsonalizatzea bultzatzea (Gizarte Politiketako Departamentua)**

Jarduera hau Etorbizuna Eraikiz Think Tank-en, Zaintza Herri Lab-en eta Gizarte Politiketako Departamentuko Erreferentziako Profesionalaren ezarpenaren esparruan garatzen da, gizarte-zerbitzuetan arreta eta zaintza pertsonalizatuaren kudeaketa sustatzeko helburuarekin (haurrak eta nerabeak; gizarte-inklusioa; mendekotasuna eta desgaitasuna; indarkeria matxistaren biktimak).

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

- 33.1.- Zaintzen pertsonalizazioari buruzko lantaldea abian jartzea
- 33.2.- Gipuzkoan gizarte zerbitzuen pertsonalizazioa bultzatzeko gida bat egitea
- 33.3.- Gizarte zerbitzuetan zainketen pertsonalizazioa bultzatzeko gidan proposatzen diren neurriak eta gomendioak aplikatzea.
- 33.4.- Erreferentziako profesionalaren figura bermatzea zerbitzu guztietan
- 33.5.- Erreferentzialtasuna kudeatzea plangintza komun batetik eta proiektu pilotuak abian jarritz
- 33.6.- Gizarte-diagnostiko balioaniztuna ezartzea (diagnostikorako tresna komunak diseinatzea, Kaiser-en piramidea, arreta- eta zaintza-ibilbideak, etab.) bigarren mailako arretan sartzeko bide bakar gisa
- 33.7. Kasu konplexua kudeatzeko barneko lantaldea ezartzea (Gizarte Politiketako Departamentua)

✓ **34. jarduketa. Zaintzen tokiko ekosistemen garapena sustatzea**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalekin eta Adinberri Fundazioarekin koordinatuta, zainzarako tokiko ekosistemen sorrera bultzatzea da jarduketa honen helburua, zainzarako ekosistemak bultzatzeko HERRI LAB ereduaren oinarri hartuta. Eredu horretan, udalerriak dira zainzarako tokiko politikaren ardatz egituratzailea.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

- 34.1.- Dirulaguntzak ematea tokiko zaintza ekosistemak abian jartzen dituzten udalei.
- 34.2.- Zaintza Herri Lab Ikaskuntza Foroa sortzea (zainketarako tokiko ekosistemak), Gipuzkoako udalerrien artean esperientziak eta gomendioak partekatzeko.
- 34.3.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko gainerako udalerriak zaintzeko tokiko ekosistemen artean esperientzia pilotuak transferitzeko sarea diseinatzea eta ezartzea.

✓ **35. jarduketa: Lurralde estrategia bat diseinatzea eta hedatzea etxeko arreta eta zainzarako eredu berri batera joateko.**

Jarduketa honen helburua da estrategia berri bat diseinatzea eta hedatzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoan etxeko arreta eta zaintza eredu berri bateranzko trantsizioa egiteko. Etxeko laguntzak eta zainketak hedatzeko eta dibertsifikatzeko formula berriak bultzatuko ditu estrategiak, eta prestazio ekonomikoak berrikusiko ditu lantalde bat sortzeari esker.

▪ **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

- 35.1.- GLHko udalekin partekatutako hasierako diagnostikoa egitea
- 35.2.- Etxeko arreta-eredu berri bateranzko trantsiziorako estrategia berria diseinatzea eta hedatzea.
- 35.3.- Egikaritzearen ondorioz sor daitezkeen gastuak kofinantzatzeko tresnak aztertzea eta diseinatzea.
- 35.4.- Etxean mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko ereduari buruzko azterketa.
- 35.5.- Etxeko zaintzaren esparruan adimen artifiziala erabiltzeko proposamena.

11. ardatza: sareko ebaluazio ereduaren garatzea

Ardatz honen helburua da zaintzak ebaluatzeko sare bat diseinatzea eta ezartzea, partaidetzako ebaluazio eredu batean oinarrituta, eta erabiltzaileak eta senideak, politiken kudeatzaileak, hirugarren sektoreko zentro eta erakundeek kudeatzaileak, adituak, kontraste taldeak (hala nola sindikatuak, familien elkarteak eta enpresa teknologikoak) konektatuko dituen. Ebaluazio sarea hainbat ebaluazio teknika aplikatuz garatzen da: kualitatiboak, kuantitatiboak, partaidetzakoak eta deliberaziozkoak.

✓ **36. jarduketa. Berrikuntza eta kudeaketa aurreratua sustatzea, Gizarte Politiketako Departamentuaren lehenetsunezko jarduketa esparru gisa.**

Jarduketa horren helburua da Gizarte Politiketako Departamentuaren (GFA) I+G+D Kudeaketa Unitatea abian jartzea Adinberri Fundazioaren partaidetzarekin. Haren helburua da gizarte zerbitzuetan eredu berritzaileak bultzatzea, Departamentuaren Ekintza Plana monitorizatzea, eta gomendioak modu bateratuan ematea gizarte politiken arloko ebidentzien berrikuntzarako eta ebaluazio prozesurako (erabiltzaileen eta lurraldeko eragileen ikuspegia txertatzea).

- **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

- 36.1.- Gizarte Politiketako Departamentuan lerketa, Garapen eta Ebaluazio Unitatea (I+G+D) diseinatzea eta abian jartzea.
- 36.2.- Gizarte Politiketako Departamentuaren berrikuntza eta partaidetza monitoreo diseinatu eta aplikatzea.
- 36.3.- Aurrerabide Kudeaketa Aurreratuko Unitatea abian jartzea

- ✓ **37. jarduketa. Partaidetzazko ebaluazioa bultzatzea egoitza zentroetan**

Jarduketa honen helburua da Gipuzkoako egoitza zentroen partaidetzazko ebaluazio eredu bat diseinatzea eta abian jartzea. Ebaluazio prozesuak erabiltzaileak/familiak, profesionalak, zentroetako kudeatzaileak eta Gizarte Politiketako Departamentuaren ikuskaritza biltzen ditu, eta teknika kuantitatiboak, kualitatiboak eta partaidetzazkoak erabiltzen ditu egoitzetako arreta eta zaintza eredu berrien garapena ebaluatzen. Jarduketa honetan 3 helburu planteatzen dira: O1.- Egoitza zentroetako erabiltzaileen bizi kalitatea monitorizatzea. O2.- Egoitza-zentroetan gizarte berrikuntzaren garapen maila monitorizatzea, arreta eta zaintzako eredu berri bateranzko trantsizioa bultzatzeko. O3.- COVID-19aren kudeaketaren hobekuntza maila monitorizatzea egoitza zentroetan.

- **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

- 37.1.- Gipuzkoako egoitza zentroen berrikuntzako eta partaidetzako monitoreo diseinatzea eta aplikatzea.

- ✓ **38. jarduketa. Sareko egiaztapen- eta ebaluazio-sistema bat diseinatzea eta abian jartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoan**

Zaintzak ebaluatzen eredu baten oinarriak diseinatzea da jarduketa honen helburua, gizarte politiken eremu guztietan zaintza eredu berri bateranzko trantsizio monitoreo baten garapenean oinarrituta. Monitoreo **ebaluazio nodoen sare** batean egituratzen da. Sare hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuko I+G+D Unitatearen gidaritzapean dago, eta metodologia kuantitatibo, kualitatibo, partaidetzako eta deliberaziozkoetan oinarritzen da, erabakiak hartzeko aginte taula batean integratuta.

- **Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

- 38.1.- Gipuzkoako Lurralde Historikora egokitutako sareko egiaztapen- eta ebaluazio-sistemaren eredu bat diseinatzea.
- 38.2.- Arreta-kalitateko estandar eta jarraibide lotesleak egitea eta betetzen direla bermatzea
- 38.3.- Zaintzak ebaluatzen sare batek osatutako Trantsizio Monitoreo diseinatu eta abian jartzea, trantsiziozko gizarte politiken aurrerapena monitorizatzen diren teknika kuantitatibo, kualitatibo, partaidetzako eta deliberaziozkoetan oinarrituta (Gipuzkoa 2030 Agenda eta 2021-2023 Ekintza Plana).

12. ardatza: Zeharkakoa. Genero eta hizkuntza berdintasuna sustatzea

Zeharkako ardatz honen helburua da 2021-2023 Ekintza Planaren jarduerak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen genero eta hizkuntza berdintasuna sustatzen duten jarduerak diseinatzea eta hedatzea. Horrez gain, genero eta hizkuntza berdintasunaren adierazleak diseinatzea eta txertatzea Trantsizioen Monitorean, zeharkako bi dimentsio horien eragina neurtzeko.

- **39. jarduketa: Gauzatutako eta/edo aurreikusitako ekintzak**

- 39.1.- 2021-2023 aldiko Irisgarritasun Planeko jarduketak ezartzen genero berdintasuna sustatzen duten jarduketak diseinatzea eta hedatzea.
- 39.2.- 2021-2023 aldiko Irisgarritasun Planeko jarduketak ezartzen hizkuntza berdintasuna sustatzen duten jarduketak diseinatzea eta hedatzea.
- 39.3.- Genero berdintasunaren eta hizkuntza berdintasunaren adierazleak trantsizioen monitorean txertatzea, zeharkako bi dimentsio horien eragina kalkulatzeko.

4.3. 2021-2023 Ekintza Planaren kudeaketa

2021-2023 Jarduera Planaren garapen operatiboa Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren ardura da. Jarduera Planaren kudeaketa egokia eta eraginkorra bermatzeko, hiru ekintza nagusi proposatzen dira:

A.1. 2021-2023 Jarduera Planaren Jarraipen Batzordea abian jartzea

Ekintza honen helburua 2021-2023 Jarduera Planaren Jarraipen Batzordea abian jartzea da.

Eginkizunak

- Gizarte Politiketako Departamentuari aholkularitza ematea 2021-2023 Ekintza Plana gauzatzeari dagokionez, ekintzak gauzatzeko prozesuetan oztopoak edo desbideratzeak daudenean jarduketak gauzatzeko prozesuari alternatibak eta gomendioak emanez.
- 2021-2023 Ekintza Planean aurreikusitako jarduketak jarraipena egiteko agente-koadro batean integratutako Trantsizioen Monitorea baliozkotzea.
- Trantsizioen Monitorea sortutako lau hilean behingo txostenak hobetzeko gomendioak ematea.
- 2021-2023 Ekintza Planaren emaitzak eta eraginak zabaltzeko eta jakinarazteko prozesuei euskarria ematea.

Jarraipen Batzordeko burua Gizarte Politiketako diputatua izango da, eta Ikerkuntza, Garapen eta Ebaluazio Unitateko kideak izango ditu kide (I+G+E) (36. jarduera)

2021-2023 Ekintza Planaren Jarraipen Batzordeak jarraipen-txostenak helaraziko dizkie kontraste-taldee eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako Gizarte Politiketako Batzordeari.

A.2. Trantsizioen monitorea diseinatzea eta inplementatzea

Ekintza honen helburua 2021-2023 Jarduera Planean aurreikusitako jardueren monitorizazio, jarraipen eta ebaluaziorako agente-taula bat diseinatzea eta ezartzea da. Trantsizio-monitorea metodologia eta teknika kuantitatibo, kualitatibo eta parte-hartzaileak konbinatzen ditu honako hauetarako: a) Jarduketa Plana operazionalizatzen duten ekintzen gauzate-maila zenbatestea; b) Ekintzen gizarte-inpaktuaren maila zenbatestea partaidetza-metodologiei eta adierazle-sistemari esker; c) Aurrerapen-maila txostenetan dokumentatzea; d) Egokia denean, gomendioak edo kontingentzia-planak eskaintzea 2021-2023 epean aurreikusitako ekintzen egikaritzea hobetzeko.

A.3. Aldian-aldian G>30 Itunaren aurrerapen berri ematea

Ekintza honen helburua komunikazio-estrategia (txostenak, dokumentuak, bideoak eta beste euskarri batzuk) diseinatu eta abian jartzea da, 2021-2023 Ekintza Planaren aurrerapen berri emateko. Era berean, komunikazio-estrategiak modu arin eta laburtuan inpaktuak eta emaitzak jakinaraziko dizkie zaintzarekin lotutako erakundeetako erabiltzaileei, profesionaleri eta kudeatzaileei.

4.4. 2021-2023 Ekintza Planetik espero diren emaitzak

1. ardatza: COVID-19aren kudeaketa soziosanitariorako euskarria

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Gipuzkoako egoitza-zentroen % 100ek Covid-19aren aurrean babes pertsonaleko hornidurak aseguratuta izango dituzte.
- Gipuzkoako egoitza-zentroen %100ek Covid-19a goiz detektatzeko eta zaintzeko monitorizazio-sistema adimenduna izango dute.
- Gipuzkoako egoitza-zentroen % 100ek parte hartu izango du egoiliarren txertaketa-kanpainetan (Covid-19aren aurkako txertoak).

2. ardatza: COVID-19aren ondorioen kudeaketa psikosozialaren euskarria

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Gipuzkoako egoitza-zentroyen % 100ek senideen eta hurbilekoen bisita-erregimen eguneratua eta estandarizatua izango dute, egoiliarrek harreman afektiboak eta emozionalak hobetzen dituztela bermatzeko.
- Gipuzkoako egoitza-zentroyen % 50 etika-kode eguneratuak aplikatzen ariko da, Gipuzkoako Esku-hartze Sozialeko Gogoeta Etikoko Taldeak proposatutako gomendioen arabera.
- Gipuzkoako egoitza-zentroyen % 20k ezarrita izango dute Komunitateari Irekitzeko Programa (garapen komunitarioa eta boluntarioria bultzatzea zentroetan).

3. ardatza: Gizarte baliabideen sare publikoa gizarte premien bilakaerara egokitzea

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Covid-19tik eratorritako behar berriei buruzko azterlana. Azterlanak gizarte-zerbitzuetan sortzen ari diren premia berriak identifikatzen ditu eta horiei erantzuteko hainbat gomendio eskaintzen ditu (arau-aldaketa barne).
- Gipuzkoako egoitza-zentroyen % 20k espazio fisikoak egokitzeko inbertsiorako laguntzak eskuratuta izango dituzte (Covid-19aren egoera)
- Gipuzkoako egoitza-zentroyen % 100ek plaza libre itunduen sistema izango dute, Covid-19aren egoerari erantzuteko.
- Zerbitzu-erakunde hornitzaileen % 60k plaza ez-okupatuengatik tarifak eguneratzeko euskarria izango dute (sektoreko akordioaren arabera)

4. ardatza: Zerbitzuen eta egoitza eta komunitate zentroyen eskaintza hobetzea

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Gizarte Zerbitzuen Mapa eguneratua, Gizarte Politiketako Departamentuaren zerbitzu-zorroa trantsizioko gizarte-politiketara egokitzeko gomendioekin
- Udalaz gairdiko zerbitzuak elkarrekin emateko Eudelekin sinatutako erakunde-akordioa
- Hiru (3) egoitza-zentro berri eraikitzen edo egokitzen hasiak izango dira, egoitza-arretako eta -zainketako eredu berrien arabera.
- Gipuzkoako egoitza-zentroyen % 20k eskura izango dituzte ingurune fisikoak pertsonalizazioak bideratutako arreta- eta zainketa-eredu berrietara egokitzeko baliabideak.

5. ardatza: Erabiltzaileen ongizatea, lan-baldintzak eta langileen gaitasuna hobetzea zaintza-eredu berrian

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Gipuzkoako egoitza-zentroetako langileen % 25ek parte hartu izango dute Goxatu Programaren jardueretako batzuetan.
- Egoitza-zentroyen % 35ek fisioterapiako, psikologiako eta terapia okupazionalako langileen ratioak bikoiztuta izango dituzte.
- Egoitza-zentroyen % 10ek esperientzia pilotu bat inplementatuta izango dute langileen zaintza autoemozionalari eta harreman-zaintzari buruz (aldaketak lan-klimatean).
- Egoitza-zentroetako langileen % 5ek parte hartu izango du ADINPREST programako prestakuntza-jarduerak batzuetan, zaintza-estilo eta -eredu berrietan profesionalizatzeko.
- Gizarte-prestazioak jasotzen dituzten eta mendetasuna duten pertsonen zaintzaileen (senitartekoen) % 3k parte hartu izango du iraupen luzeko zainketarako gaitasunak prestatzeko programan.

6. ardatza: Arretaren eta zaintzen digitalizazioa sustatzea

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Zaintza Herri Lab Plataforma Digital bat operatibo egongo da tokiko ekosistemetako (udalerriak) esperientziak trukatzeko, ikasteko eta informazioa zabaltzeko.
- Egoitza-zentroyen arteko ikaskuntza Plataforma Digitala eraginkorra izango da jardunbide egokiak trukatzeko, ebaluazio parte-hartzailea egiteko, familiekin komunikatzeko eta informazio garrantzitsua zabaltzeko.
- Etxeko unitateen Eraldaketa Digitaleko Programa bat, arretaren eta zaintzen digitalizazioa bultzatzeko (telelaguntza eta beste aukera batzuk)

- Gipuzkoako egoitza-zentroen % 10ek teknologia berriak ezarrita izango dituzte egoiliarren arreta eta zaintza hobetzeko.

7. ardatza: Komunikaziorako eta parte-hartze sozialerako estrategia bat ezartzea

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Trantsizioko Gizarte Politikei buruzko Gune Digital bat erabilgarri egongo da 2021-2023 Ekintza Planeko jarduerak monitorizatzeko (aginte-taula kapsulatua), jarduerak hedatzeko eta eragina eta gizarte-komunikazioa izateko.
- 2021-2023 Ekintza Planaren ardatzak, jarduerak eta emaitzak jakinarazteko, eginga izango da Gipuzkoa 20>30 Agendari buruzko zabalkunde-kanpaina bat.
- Familia zaintzaileetako gizonen % 5ek parte hartu izango du zaintza-arloan gizonak ahalduzko programako jardueraren batean (esperientzia pilotua)
- 2021-2023 Ekintza Planeko kontraste-taldeek % 100ek (trantsizioen monitoreak) parte hartu izango dute Partaidetza Sentsibilizaziorako Programan.
- Gizarte-boluntariotzako programa bat Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezarri eta ebaluatu izango da.

8. ardatza: Trantsizioko agendaren diseinua

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Etorbizuna eraikiz Think Tank-ek kontraste-taldeek arabera baliozkotuko dituzten emaitzak (Liburu Zuria)
- Etorbizuna eraikiz Think Tank proiektuak gizarte-zerbitzuetako pertsonalizazio-adierazleei buruzko proiektu esperimental bat diseinatu eta ezarrita izango du (erabiltzaileak barne)
- Elkarrizketa Zibilerako Mahaia abian jarrita egongo da, eta Trantsizioko Gizarte Politiken ebaluazio-nodoetako bat izango da (Trantsizioen monitoreak).
- Egoitza-ostatuak etorkizunari buruzko azterlanak egiteko, diagnostiko estrategiko bat, esperientzia pilotuen diseinua eta inplementazioa eta arreta- eta zaintza-eredu berriak sustatzeko gomendioak emango dira aurretik.

9. ardatza: Trantsizioen Agenda garatzea

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Gizarte-berrikuntzako proiektuak finantzatzeko laguntza-programa 2021-2022-2023 deialdietan ezarriko da.
- Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030 Estrategiaren jarduketek % 25 Gipuzkoako Lurralde Historikoan iraupen luze zaintzak indartzeko ezarrita egongo dira.
- Haurren Babesgabetasunaren Prebentziorako eta Arretarako Planaren jardunen % 10 ezarrita eta ebaluatuta egongo da.
- Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeen Arretarako Eredu Integral berriaren jardueren % 10 ezarrita eta ebaluatuta egongo dira.
- Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeen Arreta Integrala emateko Zentroak eraikitzen hasiak izango dira.
- Gizarteratzeko Plan Berriaren % 10 ezarrita eta ebaluatuta egongo da.
- Desgaitasun Intelektuala duten Pertsonen Bizi-kalitatearen Eredu Berriko jardueren % 5 ezarrita eta ebaluatuta egongo da.
- «Soledades No Deseadas» (ADINBERRI Fundazioa) strategiako jardueren % 5 ezarrita eta ebaluatuta egongo dira.

10. ardatza: Zaintza-eredu berri bat garatzea

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Zaintzak Pertsonalizatzeko Lantaldea (Etorbizuna eraikiz Think Tank) eratuta egongo da.
- Gizarte Zerbitzuen Pertsonalizazio Gida (Etorbizuna Eraikiz Think Tank) gizarte-politiken ekosisteman landu eta zabaldua egongo da.
- Gizarte Zerbitzuen Pertsonalizazioari buruzko Proiektu Esperimentalaren (Etorbizuna Eraikiz Think Tank) % 80 inplementatu, ebaluatu eta zabaldua egongo da.
- Gizarte Politiketako Departamentuko Gizarte-zerbitzuetako Erreferentziazko Ereduaren lehen fasea inplementatuta eta ebaluatuta egongo da.
- Kasu Konplexuak Kudeatzeko Ereduaren lehen fasea ezarrita eta ebaluatuta egongo da Gizarte Politiketako Departamentuan.
- Zaintza Herri Lab Estrategiaren jarduketek % 40 ezarrita eta ebaluatuta egongo da (txosten bat inplikaturako udalerririk bakoitzeko).

- Zaintza Herri Lab Ikaskuntza Foroaren jardueren % 25 ezarrita eta ebaluatuta egongo da.
- Etxeko Arreta eta Zainketa Eredua Berritzeko Estrategiaren jardueren % 15 ezarrita eta ebaluatuta egongo dira.
- Etxeko arreta- eta zaintza-eredu berria sustatzeko Prestazio Ekonomikoei buruzko Lantaldea sortuta egongo da, eta haren gomendioak Etxeko Arreta eta Zainketa Eredua Berritzeko Estrategian txertatuta egongo dira.

11. ardatza: Sareko ebaluazio eredia garatzea

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- Berrikuntza, Garapen eta Ebaluazio Unitatea sortuta egongo da, eta haren funtzionamendu-protokoloak eginda egongo dira.
- Trantsizio-monitoreo diseinatuta eta inplementatuta egongo da, eta haren emaitzak zabaldua.
- Kudeaketa Aurreratuko Aurrerabide Unitatea sortu eta haren funtzionamendu-protokoloak eginda egongo dira.
- Egoitza-zentroetako berrikuntzako eta bizi-kalitateko monitoreo ezarrita egongo da, eta emaitzak baliozkotuta eta zabaldua egongo dira.
- Gizarte Zerbitzuen kalitatea egiaztatzeko Ebaluazio Sarearen jardueren % 35 inplementatuta, baloratuta eta hedatuta egongo da.
- Trantsizio-monitorearen jardueren % 60 inplementatuta egongo dira, eta haien emaitzak zabaldu egingo dira.

12. ardatza: Genero eta hizkuntza berdintasuna sustatzea

2023rako, honako emaitza hauek espero dira:

- 2021-2023 Ekintza Planean gauzatutako jardueren % 100ek oreka izango du generoaren arloan egindako jardura guztietan.
- 2021-2023 Ekintza Planean gauzatutako jardueren % 100ek hizkuntza-oreka izango du egindako jardura guztietan.



ERANSKINAK

I. ERANSKINA

2021-2023 jarduketaren fitxak

Zenbakia	1		
Jarduketaren izenburua	Babes pertsonaleko hornidurak ziurtatzea (COVID-19)		
Hasiera data	01-2021	Amaiera data	12-2022
Helburuak	Foru-sareko zentroetan NBEen hornidura bermatzea		
Hartzaileak	Foru-sareko zentroetako erabiltzaileak eta langileak		
Eragin-eremua	Foru sareko zentroak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	1.1.- 2021ean eta 2022an hornidura bermatzeko beharrezkoa den norbera babesteko materialaren lizitazioa, erosketa eta biltegiatzea. 1.2.- Materiala foru sareko zentroen artean banatzea.		
Kalkulatutako aurrekontua	5.000.000 €		

Zenbakia	2		
Jarduketaren izenburua	Monitorizazio adimenduna, COVID-19a goiz detektatzeko eta kontrolatzeko		
Hasiera data	01-2021	Amaiera data	12-2022
Helburuak	PRC testak edo antigenoak mapatzeko eta aplikatzeko estrategiak indartzea, alerta goiztiarrak egiteko foru sareko zentroetan		
Hartzaileak	Foru sareko zentroetako erabiltzaileak eta langileak		
Eragin-eremua	Foru sareko zentroak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	2.1.- Foru talde bat abian jartzea, foru sareko zentroetan COVID-19 detektatu eta prebenitzeko. 2.2.- Foru sareko zentroetan COVID-19 prebenitzeko metodologia diseinatzea eta aplikatzea.		
Kalkulatutako aurrekontua	1.500.000 €		

Zenbakia	3		
Jarduketaren izenburua	COVID-19aren aurkako txertaketa kanpainaren koordinazioa.		
Hasiera data	03-2021	Amaiera data	12-2022
Helburuak	Kaltebera izan daitekeen biztanleriaren txertaketa ekintzak koordinatzea, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak ezarritako txertaketa kanpainaren esparruan.		
Hartzaileak	Foru sareko zentroetako erabiltzaileak eta langileak		
Eragin-eremua	Foru sareko zentroak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	3.1.- Txertaketarako foru talde bat abian jartzea.		
Kalkulatutako aurrekontua	150.000 €		

Zenbakia	4		
Jarduketaren izenburua	Egoitzetako adinekoentzako bisita-erregimena eguneratzea.		
Hasiera data	01-2021	Amaiera data	12-2022
Helburuak	Adinekoentzako egoitzetako bisita-erregimena egokitzea eta malgutzea.		
Hartzaileak	Foru-sareko zentroetako erabiltzaileak eta senideak		
Eragin-eremua	Adinekoentzako eta desgaituentzako egoitza-zentroak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	4.1.- Bisita birtualak sustatzeko ukimen gailuak erosi eta instalatzea. 4.2.- Gune seguruak eta karpak prestatzea zentroen inguruan ibilaldiak eta bisitak bermatzeko. 4.3.- Irteeren eta bisiten arloko araudia egoera epidemiologikoaren bilakaerara egokitzea eta malgutzea.		
Kalkulatutako aurrekontua	200.000 €		

Zenbakia	5		
Jarduketaren izenburua	COVID-19a kudeatzeko etika kodeak berrikustea.		
Hasiera data	01-2021	Amaiera data	12-2022
Helburuak	Etika kode berrietan edo berrikusietan oinarritutako arreta eta zainketak kudeatzeko protokolo berriak hobetzea, COVID-19aren protokoloak hobeto kudeatzeko		

Hartzaileak	Erakundeak, entitate kudeatzaileak, erabiltzaileak, langileak eta zerbitzuen senideak
Eragin-eremua	Foru sareko zentroak
Aurreikusitako ekintza kopurua	5.1.- Gipuzkoako Esku-hartze Sozialeko Etika Batzordeari kontsultatzea COVID19ari aurre egiteko Talka Planeko ekintzen egokitasunari buruz. 5.2.- Gogoeta Etikoko Taldea eratzea. Talde horren eginkizuna arazo konplexuak konpontzeko eta erabakiak hartzen laguntzeko gune gisa funtzionatzea da, tartean diren alderdi guztiak kontuan hartuta. 5.3.- Zainketei buruzko dokumentu bat egitea, hainbat erakundetako eta erabiltzailetako adituek, langileek eta senideek baliozkotua, zentroetan hartu beharreko neurriei buruzko gomendioak egiteko.
Kalkulatutako aurrekontua	0 €

Zenbakia	6		
Jarduketaren izenburua	Egoitza zentroak eta komunitatea lotzea		
Hasiera data	01-2021	Amaiera data	12-2023
Helburuak	Egoitza-zentroen eta komunitatearen arteko harremanak hobetzea		
Hartzaileak	Zentroetako erakunde kudeatzaileak, erabiltzaileak, langileak eta senideak		
Eragin-eremua	Egoitza zentroak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	6.1.- Komunitateari irekitzeko programa abian jartzea (komunitate garapena)		
Kalkulatutako aurrekontua	50.000 €		

Zenbakia	7		
Jarduketaren izenburua	COVID-19tik eratorritako premia sozial berrien azterketa Gipuzkoan		
Hasiera data	06-2021	Amaiera data	12-2022
Helburuak	Premia berriak mapatzea eta horiei erantzuteko gomendioak proposatzea		
Hartzaileak	Sistemako eragile guztiak		
Eragin-eremua	Gizarte Politiketako Departamentuari lotutako gizarte-baliabide guztiak.		
Aurreikusitako ekintza kopurua	7.1.- Azterlan bat egitea COVID-19tik eratorritako premia sozial berriak aztertzeko, arreta berezia jarrita sare publikoaren arreta zerbitzu eta prestazioekin lotutako premietan, eta gomendioak proposatzeko, arau aldaketak barne		
Kalkulatutako aurrekontua	15.000 €		

Zenbakia	8		
Jarduketaren izenburua	Zentroak COVID-19ak eragindako egoera berrira egokitzea		
Hasiera data	01-2021	Amaiera data	12-2022
Helburuak	Gipuzkoako baliabide sozialen sare publikoan alerta/prebentzio/zaintza egoera iraunkorra aktibatzea		
Hartzaileak	Zentroetako erakunde kudeatzaileak, erabiltzaileak, langileak eta senideak		
Eragin-eremua	Egoitza-zentroak, eguneko zentroak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	8.1.- Sektorizazioa aztertzea eta ezartzea egoitza zentro guztietan 8.2.- Itunpeko plaza libreen kopuru nahikoa gaitzea zentroetan arreta eta prebentzioa hobetzeko. 8.3.- Inbertsiorako laguntza-lerro bat onartzea zentroak egoera berrira egokitzeko.		
Kalkulatutako aurrekontua	15.800.0000 €		

Zenbakia	9		
Jarduketaren izenburua	Gizarte zerbitzuen erakunde hornitzaileekiko konpromisoa indartzea		
Hasiera data	06-2021	Amaiera data	12-2023
Helburuak	Erakunde hornitzaileentzako laguntza indartzea		
Hartzaileak	Zentroetako erakunde kudeatzaileak, erabiltzaileak, langileak eta senideak		
Eragin-eremua	Zaharren egoitzak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	9.1.- Tarifak eguneratzea, sektoreetan lortutako akordioen arabera		

	9.2.- Bete gabeko plazengatiko tarifen igoera
Kalkulatutako aurrekontua	5.700.000 €

Zenbakia	10		
Jarduketaren izenburua	Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa egokitzea eta hedatzea		
Hasiera data	01-2021	Amaiera data	12-2023
Helburuak	Plaza eta zerbitzu berrien eskaintza aurreikusitako behar berrietara egokitzea		
Hartzaileak	Sistemako eragile guztiak		
Eragin-eremua	Gizarte-zerbitzu guztiak (Gizarte Politiketako Departamentua)		
Aurreikusitako ekintza kopurua	10.1.- Gizarte Zerbitzuen Mapa berrikustea eta gomendioak egitea, eskaintza publikoa egokitzeke zaintzen politika berri baten arabera identifikatutako premietara. 10.2.- Eudelekin koordinatuta, udalaz gaindiko zerbitzuak elkarrekin emateko formula berriak bultzatzea.		
Kalkulatutako aurrekontua	10.800.000 €		

Zenbakia	11		
Jarduketaren izenburua	Gipuzkoako egoitza zentroen sarea pixkanaka egokitzea egoitza arretako eredu berrira.		
Hasiera data	10-2021	Amaiera data	12-2023
Helburuak	a) Eredu berritzailean oinarritutako egoitza-zentro berrien eraikuntza bultzatzea; b) Gaur egungo egoitzak arkitektonikoki berritzea, pixkanaka egoitza-arretako eredu berrira egokitzeke. c) Gaur egungo egoitzen ingurune fisikoak (espazio- eta arkitektura-baldintzak) egokitu eta hobetzea.		
Hartzaileak	Zentroetako erakunde kudeatzaileak, erabiltzaileak, langileak eta senideak		
Eragin-eremua	Egoitza zentroak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	11.1.- Ezohiko deialdi bat onartzea, pertsonarengan gehiago zentratutako eredu batean oinarritutako zentro berrien eraikuntza sustatzeko, eta lehendik dauden zentroak birmoldatzeko eta handitzeko, horien arkitektura eta antolamendua egoitza arretako eredu berrira egokitzeke helburuarekin. 11.2.- Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako zentroak eraiki eta birmoldatzeko proiektuak egoitza arretako eredu berrira egokitzea. 11.3.- Egoitza zentroetako ingurune fisikoen hobekuntzari buruzko azterlan orokorra egitea, egoitza arretara egokituta. 11.4.- Zentro bakoitzeko ingurune fisikoen mapa egitea, hobetzeko helburuarekin.		
Kalkulatutako aurrekontua	31.600.000 €		

Zenbakia	12		
Jarduketaren izenburua	Erabiltzaileen bizi kalitatea eta ongizatea hobetzea		
Hasiera data	01-2021	Amaiera data	06-2023
Helburuak	Zentroetako erabiltzaileei laguntza psikosoziala, arreta emozionala eta harreman-garapena eskaintzea		
Hartzaileak	Zentroetako erakunde kudeatzaileak eta erabiltzaileak		
Eragin-eremua	Egoitza zentroak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	12.1.- Goxatu jarduera programa abian jartzea 12.2.- Zerbitzuen Katalogoa aldatzea, adinekoen egoitza zentroetako fisioterapia, psikologo eta terapia okupazionalen ratioak bikoizteke.		
Kalkulatutako aurrekontua	650.000 €		

Zenbakia	13		
Jarduketaren izenburua	Langileen emozio eta harreman zaintzarako laguntza hobetzea		
Hasiera data	03-2021	Amaiera data	12-2023
Helburuak	Laguntza profesionala eskaintzea langileen autozaintza emozional eta erlazionalerako		
Hartzaileak	Zentroetako erakunde kudeatzaileak eta erabiltzaileak		
Eragin-eremua	Egoitza zentroak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	13.1.- Hainbat zentrotan abian jartzea esperientzia pilotu bat, langileen autozaintza emozionala eta erlazionala sustatzeko baliagarri izango dena.		

	13.2.- Zentroekin lankidetzan aritzea, esperientzia pilotua eskalatzeko, hala badagokio.
Kalkulatutako aurrekontua	75.000 €

Zenbakia	14		
Jarduketaren izenburua	Zainketetan langileen ongizatea, lan-baldintzak eta gaikuntza hobetzea zainketa-eredu berrian		
Hasiera data	03-2021	Amaiera data	12-2023
Helburuak	Zaintzaile profesionalen eta ez-profesionalen lanbide-gaikuntza eta lan-baldintzak hobetzea, emakume langile migratzaileei arreta berezia eskainiz.		
Hartzaileak	Erakunde kudeatzaileak, eremu soziosanitarioko langileak eta zaintzaile ez-profesionalak		
Eragin-eremua	Egoitzak, Etxeak, Zaintzarako Ekosistemak		
Aurreikusitako ekintza kopurua	14.1.- Adinberri Fundazioarekin koordinatuta, ADINPREST proiektua diseinatu eta gauzatea. Proiektuaren helburua da zaintzaileak profesionalizatzea eta gaitzea, bai etxean, bai egoitza-zentroetan, arreta-eredu berriei erantzuteko eta zaintza-merkatua sustatzeko Gipuzkoan. 14.2.- Profesionalak ez diren zaintzaileak prestatzeko programa bat diseinatzea eta abian jartzea		
Kalkulatutako aurrekontua	750.000 €		

Zenbakia	15		
Jarduketaren izenburua	Herritarren artean zaintza eredu berriei buruzko prestakuntza sustatzea.		
Hasiera data	01-2021	Amaiera data	12-2023
Helburuak	15.1.- Herritarrei zuzendutako iraupen luzeko zainketetan gaitasunak prestatzeko programa bat diseinatu eta abian jartzea, arlo horretan dauden eta zainketako tokiko ekosistemei lotutako esperientziak artikulatuz (parte hartzeko eskolak, bizi-proiektua, trantsizio-akademia, etab.).		
Hartzaileak	Herritarrak, oro har (bereziki 55-65 urteko helduak eta 18-25 urteko gazteak)		
Eragin-eremua	Zaintzako tokiko ekosistemak		
Kalkulatutako aurrekontua	75.000 €		

Zenbakia	16		
Jarduketaren izenburua	Zaintza Herri LAB Plataforma Digitala abian jartzea zaintzako tokiko ekosistemarako		
Hasiera data	01-2021	Amaiera data	06-2022
Helburuak	Tokiko eragileen, udalen, proiektu esperimentalen eta erabiltzaileen arteko konektibitatea ahalbidetzea zaintzako tokiko ekosistemen garapenean. Dauden plataformen arteko datuen elkarreragingarritasuna erraztea.		
Ardatz honen helburua da profesionalentzako laguntzak hobetzea (Goxatu programa), profesionalentzako nahiz zaintzaile informalentzako prestakuntza eta gaikuntza ildo berriak sustatzea egoitzetan eta etxebizitzetan.	% 6	% 0	% 94	% 100
6. ARDATZA: Ikasteko plataforma digital bat garatzea	Ados ez	Neutroa	Ados	Guztira
Ardatz honen helburua da hirugarren sektoreko erakundeen digitalizazioa bultzatzea, eta jardunbide egokiak eta berrikuntzak trukatzeko plataforma digitalak sortzea.	% 6	% 34	% 60	% 100
7. ARDATZA: Gizarte komunikazioko estrategia bat ezartzea	Ados ez	Neutroa	Ados	Guztira
Ardatz honen helburua da komunikazio, sentsibilizazio eta informazio programetan oinarritutako gizarte komunikazioko estrategia bat sustatzea, erabiltzaileak, familiak, erakundeak eta antolakundeak barne.	% 0	% 23	% 77	% 100
BERRIKUNTZA POLITIKAK				
8. ARDATZA: Trantsizioko Agenden diseinua	Ados ez	Neutroa	Ados	Guztira
Ardatz honen helburua da zainketa eredu berri baterako trantsizio agendak garatzea gizarte politiken eremu guztietan, gizarte zerbitzuen maparen garapenean eta elkarlaneko gobernantza espazioen sustapenean oinarrituta (Think Tank eta kontraste-taldeak).	% 3	% 17	% 80	% 100
9. ARDATZA: Trantsizio Agendaren hedapena	Ados ez	Neutroa	Ados	Guztira
Ardatz honen helburua esperimendazioa eta berrikuntza bultzatzea da, gizarte berrikuntzako proiektuei laguntzak eta finantzaketari emanez, zaintzarako tokiko ekosistemak bultzatuz, eta arreta eta zaintzen plan berriak hedatuz (gizarte inklusioa, haurrak eta indarkeria matxista, besteak beste).	% 3	% 17	% 80	% 100
10. ARDATZA: Ebaluazio-sistemen garapena	Ados ez	Neutroa	Ados	Guztira
Ardatz honen helburua sareko ebaluazio eredu berri bat sustatzea da (Gipuzkoa 2030 Agendaren monitorizazioa eta 2021-2023 Ekintza Plana), partaidetzako ebaluazio eruedetan eta Zaintzak Ebaluatzeko Agentzia baten diseinuan oinarrituta.	% 3	% 9	% 89	% 100

Egonkortze politikak

4. ardatza. Egoitza eta komunitate zentroi zuzendutako politikak hobetzea.

Kontsultatutako adituen eta erakundeen % 94 ados daude ardatz horri lotutako jardueren garapenarekin, hala nola eraikinak berritzen laguntzea eta zaintza-eredu berriak sustatzea.

5. ardatza. Erabiltzaileen eta profesionalen ongizatea hobetzea. Kontsultatutako adituen eta erakundeen % 94 ados dago ardatz honekin lotutako jardueren garapenarekin, hala nola Goxatu programaren garapenarekin, prestakuntza eta gaikuntzako online eredu berriekin.

6. ardatza. Ikaskuntzako plataforma digital bat garatzea. Kontsultatutako adituen eta erakundeen %60 ados daude hirugarren sektoreko digitalizazio-estrategiarekin, jardunbide egokiei buruzko truke-plataforma digitalen sorrerarekin. Haatik, digitalizazio-prozesuari buruzko iruzkin kritikoak daude, eta horiek jarduketa horiek hobeto zehaztera behartzen dute.

7. ardatza. Gizarte komunikazioko estrategia bat ezartzea Kontsultatutako adituen eta erakundeen % 77 ados dago gizartearekin eta erabiltzaileekin komunikazioa sustatzeko jardueren garapenarekin, sentsibilizazio-estrategietan eta komunikazio-kanpainetan oinarrituta.

Sintesia: Egonkortzeko Gizarte Politikak lau ardatz nagusitan egituratuta daude, eta epe ertaineko jarduerak garatzen dituzte, erabiltzaileen bizi-kalitatea, langileen lan-baldintzak, prestakuntza-programa berrien sustapena eta erabiltzaileei, erakundeei eta, oro har, gizarteari informazioa emateko komunikazioa hobetzeko. Lortutako erantzunetatik abiatuta, lau ildo horiek eta haien jarduerak bultzatzeko adostasuna dagoela ziurta daiteke, Ikaskuntza Plataforma Digitalen garapenean izan ezik, non adostasun txikiena dagoen (% 60).

Berrikuntza politikak

8. ardatza. Trantsizioko Agendaren diseinua Kontsultatutako adituen eta erakundeen % 80 ados dago agenda berriak, adostasunak eta elkarlaneko gobernantzan eta parte-hartze sozialean oinarritutako ekimenen diseinua sortzeko espazio berrien garapenarekin.

9. ardatza. Trantsizio-agendak hedatzea. Kontsultatutako adituen eta erakundeen % 80 ados dago ardatz horrekin. Ardatz horrek trantsizioen agenda sustatzearekin lotutako jarduerak garatzen ditu, besteak beste, gizarte-berrikuntzako proiektuak finantzatzea, zaintzako tokiko ekosistemak bultzatzea eta jarduera-planak gizarte-politiken hainbat arlotan hedatzea.

10. ardatza. Ebaluazio-sistemen garapena. Kontsultatutako adituen eta erakundeen % 89 ados dago ardatz horrekin, monitoreen sorrera eta bizi-kalitatea, berrikuntza eta trantsizioa hobetzeko ebaluazio-sare bat sustatzen baititu. Hala ere, badira iruzkinak ebaluazioaren zati bat kalitatea ebaluatzerara eta prozesuak eta emaitzak egiaztatzerara bideratzearen garrantziari buruz.

Sintesia: Berrikuntzako Gizarte Politikak hiru ardatz nagusitan egituratzen dira. Ardatz nagusi horiek epe luzeko jarduketak garatzen dituzte arreta- eta zaintza-eredu berrietarako trantsizioa sustatzeko, berrikuntza garatuz eta zaintzako tokiko ekosistemak sortuz, bai eta ebaluazio-sistema parte-hartzaileak ere, jarduketan eta trantsizioaren inpaktua balioesteko. Lotutako erantzunetatik abiatuta, hiru jarduera-ildo horiek eta horiekin lotutako ekintzak bultzatzeko premiari buruzko adostasun zabala dagoela ziurta daiteke.

3. atala: Gomendioen integrazioa

Agenda eta 2021-2023 Ekintza Plana baliozkotzeko bileretan eta adostasun-galdetegietan, parte-hartzaileek iruzkinak eta gomendioak egin zituzten. Atal honetan ematen dira gomendio horiek.

Ildo horretan, Gipuzkoako Esku-hartze Sozialeko Etika Batzordearen ekarpenak nabarmendu behar dira, dokumentu honen hainbat eduki hobetzeko balio izan baitute.

A. Zainketa-ereduari buruz

A.1. Arreta-ereduaren definizioa

1. iruzkinak: *"Zaintza-eredua" terminoa ez da erabiltzen adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat. Arreta-eredua, laguntza-eredua egokiagoa da...*

2. iruzkina: *Zorionak eman nahi nizkizueke zainketak adinekoei bakarrik lotu beharrean bizi-zikloari lotuta egon behar dutela eta haurtzaroan hasi behar dutela aitortzeagatik.*

3. iruzkina: *Kasu-komplexutasuneko eta geruzatze-estrategia bat eta Kaiser-en piramidea garatzea (...) Kasu konplexuen arreta Gizarte Politiketako Departamentuaren barruan txertatuz gero, gaur egungo zatikatzea gainditu ahal izango litzateke, zerbitzu-motaren arabera.*

4. iruzkina: *Balorazio guztiak Gizarte Politiketako Departamentuan txerta daitezen bultzatzea: balorazio-prozesu bakar bat eta kudeaketa-erantzukizun bakar bat balorazio-zerbitzu batean eta bigarren mailako arretan sartzeko zerbitzu batean (...). Zeregin hori garatzeko, Balioespen eta Sarbide Batzorde Tekniko bat sortzea.*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
27 zk.: Gipuzkoa 2030 Zaintza Lurraldea estrategia hedatzea	Jarduketa honen helburua da Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030 estrategia diseinatzea eta hedatzea, lurralde mailan iraupen luzeko zaintza politiken garapen integralera bideratuta, etxeko zaintzen eredu berrien garapena integratuta.	Eusko Jaurlaritza Etorikizuna Eraikiz Gizarte Politiketako Departamentua Udalak ADINBERRI OSAKIDETZA

		Egoitza-zentroak, eguneko zentroak eta beste baliabide batzuk Erabiltzaileak (profil desberdinak), profesionalak, zaintzaileak.
34 zk.: Zaintzen tokiko ekosistemen garapena sustatzea	Jarduera honen helburua zainketarako tokiko ekosistemen HERRI LAB eredu diseinatu, garatu eta transferitzea da (profilen estratifikazioa, Kaiser piramidea, kasuen kudeaketa eta balorazio bakarreko tresnen integrazioa barne, Gizarte Politiketako Departamentuan kasu-kudeatzailearekin). Lankidetzako Sare Teknikoa.	Eusko Jaurlaritza Etorkizuna Eraikiz Gizarte Politiketako Departamentua Udalak ADINBERRI OSAKIDETZA Egoitza-zentroak, eguneko zentroak eta beste baliabide batzuk Erabiltzaileak (profil desberdinak), profesionalak, zaintzaileak.
35 zk.: Etxeko zainketa-eredu berri bateranzko Lurralde Estrategia	Jarduera honen helburua da etxeko zainketa-eredu berri bat bultzatzea, prestazio ekonomikoei eta etxean arreta eta zaintza emateko tresna berrien diseinuari eta ezarpenari buruzko eztabaida aurreikusiz.	Gizarte Politiketako Departamentua Udalak Etorkizuna Eraikiz ADINBERRI Hirugarren sektoreko erakundeak Enpresak Etxeari lotutako arreta-zerbitzuak Erabiltzaileak (profil desberdinak), profesionalak, zaintzaileak.
31 zk.: Gipuzkoan adimen eta garapen desgaitasuna duten pertsonen parte hartzea eta bizi kalitatea babesteko eta sustatzeko eredu berria	Pertsonen parte-hartzea eta bizi-kalitatea sustatzeko esparru berri bat diseinatzea eta garatzea, adimen desgaitasunaren arreta-, babes- eta laguntza-zerbitzu berrien berrikuntzari esker.	Gizarte Politiketako Departamentua Hirugarren sektoreko erakundeak Adimen desgaitasuna duten pertsonak Adimen desgaitasuna duten pertsonen senitartekoak

A.2. Dimentsio komunitarioa

4. iruzkina: *Garrantzitsua iruditzen zait programa komunitarioagoak bultzatzea erabiltzaileen ingurunean, familien zaintza barne hartzen dutenak eta premia zehatzak identifikatzea eta laguntzak individualizatzea bermatzen dutenak. Gainera, kostu txikiagoa izango lukete administrazio publikoarentzat*

5. iruzkina: *Egoitza-zentroen politikak hobetzea: ez soilik erresidentzialak. Ikuspegi komunitarioan sinesten badugu, oso garrantzitsua da zerbitzu komunitarioei buruz berriaz hitz egitea: eguneko zentroak, zerbitzu ambulatorioak, etab.*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
6. zk. Egoitza zentroak eta komunitatea lotzea	Jarduera honen helburua da gizarte-jarduerak (musikakoak, kulturalak, etab.) birsustatzea eta komunitatearen parte-hartzea erraztea.	Gizarte Politiketako Departamentua Egoitza zentroak Zerbitzuen erakunde hornitzaileak Beste gizarte-erakunde batzuk Erabiltzaileak (profil desberdinetako adinekoak, profesionalak)

9. zk. Gizarte zerbitzuen erakunde hornitzaileekiko konpromisoa indartzea	Jarduera honen helburua da zerbitzuak ematen dituzten erakundeen zeregina indartzea.	Gizarte Politiketako Departamentua Zerbitzuen erakunde hornitzaileak
27 zk.: Gipuzkoa 2030 Zaintza Lurraldea estrategia hedatzea	Jarduketa honen helburua da Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030 estrategia diseinatzea eta hedatzea, lurralde mailan iraupen luzeko zaintza politiken garapen integralera bideratuta, etxeko zaintzen eredu berrien garapena integratuta.	Eusko Jaurlaritza Etorkizuna Eraikiz Gizarte Politiketako Departamentua Udalak ADINBERRI OSAKIDETZA Egoitza-zentroak, eguneko zentroak eta beste baliabide batzuk Erabiltzaileak (profil desberdinak), profesionalak, zainzaileak.

A.3. Xede-populazioak

6. iruzkina: *Oro har, mendetasuna duten adinekoen zaintza-premietara bideratutako galdetegia hautematen dut, eta datozen urteetan zaintza-eskaerak gora egingo du adin goiztiarragoetan eta mendetasun txikiagoa dutenetan baina zaintza-premia handia dutenetan.*

7. iruzkina: *Adimen desgaitasunak zenbait ezaugarri ditu (profilen heterogeneotasuna, esku-hartzearen eta laguntza-zerbitzuen espezializazio-beharra, familian duen inpaktua eta, ondorioz, pertsonaz haragoko zerbitzuen premia, administrazio kudeatzaileen zeharkakotasuna, hirugarren sektoreko erakundeak bizi-ziklo osoan zehar kasuaren erreferente gisa, eta abar), eta, horregatik, kolektibo horrek arreta-eredu espezifiko bat izan beharko luke, adinekoen erduetarako edo beste kolektibo batzuetarako ez bezalakoa.*

8. iruzkina: *2030 Agenda gizarte-politika guztiei buruzkoa bada, uste dut haurtzaroarekin eta gizarte-bazterketarekin lotutako gaiak garrantzi eta protagonismo handiagoa izan beharko luketela (...) Testuinguru horretan, uste dut horrelako agenda bat aukera ona izan litekeela GFA gehiago inplikatzeko familia-, haur- eta gazte-politiketan, besteak beste erronka demografikoa, berrikuntzakoa eta egokitzapeneko dutelako.*

9. iruzkina: *Nire ustez, dokumentuak ez du gizarte-politiken ikuspegi holistiko bat biltzen, baizik eta egoitzetako adinekoentzako iraupen luzeko zaintzetan oinarritzen da, batez ere. Marjinalki, beste biztanleria-talde batzuk baino ez ditu aipatzen, eta horiek Gizarte Politiketako Departamentuaren eskumenekoak dira.*

10. iruzkina: *Kontingentzia-politikak, adineko pertsoez gain (eta desgaitasuna dutenak), haur, emakume eta etxerik gabeko pertsoei ere heltzea*

11. iruzkina: *Oinarritzko arreta-sistema bat definitzea piramidearen oinarrian zerbitzu publikorako eskubiderik ez dutenentzat, hirugarren sektoreko erakundeen bitartez, gutxieneko duintasun-estandar bat bermatzeko.*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
10 zk.: Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa egokitzea eta hedatzea.	Jarduera honen helburua zerbitzuak mapatzea da, egiturazko beharrak identifikatzeko eta egokitzapen-programak bultzatzeko.	Gizarte Politiketako Departamentua Zerbitzu Sare Publikoko zentroak Arloak: gizarteratzea, babesik gabeko adingabeak, indarkeria matxistaren, mendekotasunaren eta desgaitasunaren biktima diren emakumeak.
28 zk.: Haurren babesgabetasunaren prebentziorako eta	Jarduera honen helburua haurren babesgabetasunaren prebentziorako eta arretarako plan berria diseinatzea	Gizarte Politiketako Departamentua Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak

arretarako plan berria hedatzea	eta hedatzea da, adingabearen bizi-kalitatea hobetzeko estrategiak erabiliz (premiazko harrera, egoitza- eta familia-harrera) zaintza personalizatza bideratutako erduekin.	Babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeak Babesgabetasun-egoeran dauden familiak
29 zk.: Indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko eredu integral berria hedatzea	Jarduera honen helburua da zaintzaren personalizazioan eta gizarte-zerbitzuen eredu feministan (emakume biktimen ahalduntzea) oinarritutako eredu berri bat diseinatzea eta hedatzea. Erakunde arteko koordinazioa	Gizarte Politiketako Departamentua Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak Indarkeria matxistaren emakume biktimak
30 zk.: Gizarte Inklusioko Plan berria hedatzea	Jarduera honen helburua da gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko ibilbide berriak diseinatzea eta hedatzea (ekonomikoki gizarteratzeko aukerak). Erakunde arteko koordinazioa	Gizarte Politiketako Departamentua Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak
31. zk.: adimen-desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea babesteko eta sustatzeko eredu berria	Pertsonen parte-hartzea eta bizi-kalitatea sustatzeko esparru berri bat diseinatzea eta garatzea, adimen desgaitasunaren arreta-, babes- eta laguntza-zerbitzu berrien berrikuntzari esker. Erakunde arteko koordinazioa	Gizarte Politiketako Departamentua Hirugarren sektoreko erakundeak Adimen desgaitasuna duten pertsonak Adimen desgaitasuna duten pertsonen senitartekoak

A.4. Prestakuntza eta gaikuntza zaintza-eredu berrietan

12. iruzkina: *Nire ustez, LHko eta Unibertsitateko prestakuntza indartu behar da. Baina ez litzateke modalitate digitalerara mugatuko; nire ustez, aurrez aurreko prestakuntzarako estrategia konbentzionalago bat ere garatu liteke.*

13. iruzkina: *Proposatuko nuke zainketa-eredu berriak langile-estrategia zabal bat barne hartzea (...) profil profesional berriak sortzea, egiaztatzea eta profesionalizatzea, prestakuntza behar eta joera berrietara egokitzea.*

14. iruzkina: *Adierazi behar da osasun-sisteman geriatricari ez dagoela, gerontologo gehiago behar ditugula eta zentro gerontologiko eta soziosanitarioetan zuzendariak prestatu behar ditugula eta Euskadin oso defizitarioa den osasun mentaleko arreta hobetu behar dugula.*

15. iruzkina: *Pertsona adindun aktiboen integrazioa sustatzea. Adinekoen garapen pertsonal eta sozialerako planak egiteko eskuliburu bat idaztea, erretiroko prestakuntza-modulu bat eta bizi-etapa berria barne, adinekoentzako prestakuntza-jardueren mapa batean oinarrituta.*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
13 zk.: Langileen emozio eta harreman zaintzarako laguntza hobetzea	Egoitza-zentroetan eta eguneko zentroetan arreta berezia jarriz, langileei laguntza emozionala emateko eta beren burua zaintzeko prestakuntza emateko programa bat sustatzea (esperientzia pilotuak)	Gizarte Politiketako Departamentua Egoitza zentroak Eguneko zentroak Zerbitzuen erakunde hornitzaileak Profesionalak

14 zk.: Zaintzaileen prestakuntza hobetzea	Prestakuntza-programa egokituak (online) garatzea, iraupen luzeko zaintza-eredu berriak bultzatzeko hainbat arlotan (gerontologikoa, soziosanitarioa eta osasun mentala)	Gizarte Politiketako Departamentua ADINBERRI Zerbitzuen erakunde hornitzaileak Lanbide heziketa (LH) Desgaitasunarekin lotutako profesionalak eta adinekoak Zaintzaile etorkinak eta ez etorkinak
15 zk.: Zaintza eredu berrien gainean herritarrak prestatzea sustatzea.	Herritarrei zuzendutako prestakuntza-programak garatzea, zainketa-eredu berriekin, bizi-proiektuarekin eta trantsizio-eskolekin/herritarren partaidetzarako eskolekin lotutako tokiko eta lurraldeko ekimenak lotuz.	Eusko Jaurlaritza Gizarte Politiketako Departamentua ADINBERRI Etorkizuna Eraikiz Hirugarren sektoreko erakundeak Unibertsitateak Adineko pertsonak (65 urtetik gorakoak) Gazteak (18-25 urte) Adineko pertsonak (45-65 urte)

A.5. Zaintzen pertsonalizazioa

16. iruzkina: *Zaintzak pertsonalizatzea: gure ustez, malgutasuna dago arreta-eredua pertsonaren behar eta interesetara egokitzeko orduan, betiere zerbitzuaren aurrekontu orokorraren barruan eta erakundearen beraren kudeaketa-eremuaren barruan.*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
11 zk.: Gipuzkoako egoitza zentroyen sarea pixkanaka egokitzea egoitza arretako eredu berrira.	Jarduera honen helburuak zainketak sustatzen du pertsonalizatzaera, egoitza-zentroetako espazio fisikoak egokitzaera eta zentro moderno berriak eraikitzaera bideratutako ereduak garatzea.	Gizarte Politiketako Departamentua Egoitza zentroak Eguneko zentroak Zerbitzuen erakunde hornitzaileak
31 zk.: Gipuzkoan adimen eta garapen desgaitasuna duten pertsonen parte hartzea eta bizi kalitatea babesteko eta sustatzeko eredu berria	Pertsonen parte-hartzea eta bizi-kalitatea sustatzeko esparru berri bat diseinatzea eta garatzea, adimen desgaitasunaren arreta-, babes- eta laguntza-zerbitzu berrien berrikuntzari esker.	Gizarte Politiketako Departamentua Hirugarren sektoreko erakundeak Adimen desgaitasuna duten pertsonak Adimen desgaitasuna duten pertsonen senitartekoak
33 zk.: Zaintzaren eta zerbitzuen pertsonalizazioa sustatzea gizarte politiketan.	Zaintzak eta Gizarte Zerbitzu guztiak Pertsonalizatzeko Lantaldea diseinatzea eta garatzea (gomendioak eta jarduera-plana)	Gizarte Politiketako Departamentua ADINBERRI Etorkizuna Eraikiz Zerbitzuen erakunde hornitzaileak Unibertsitateak Profil desberdinak dituzten pertsonak

A.6. Zaintzaren kalitaterako langileen ratioak

17. iruzkina: *Kalitatezko zaintza profesionalak eta pertsonalizatuak eman nahi badira, gizarte-zerbitzuen euskal sistemako baliabideetako langileen ratioak berrikusi behar dira.*

18. iruzkina: *Arreta-ratioetan malgutasuna izatea funtsezkoa da DI-A duen pertsonaren interesetan eta beharretan oinarritutako programa bat benetan gauzatu ahal izateko.*

19. iruzkina: *Nik ez nuke ratioak berrikustez hitz egingo. Eredua eta eskaini beharreko prestazioak berrikustez edo eguneratzeaz hitz egingo nuke, eredu berriak eskatzen dituen intentsitatearen, laguntzen eta zainketeen arabera, eta horrek eramango gintuzke ratioetara.*

A.7. Lan-baldintzak

20. iruzkina: *Faltan botatzen dugu langileei eragiten dien guztiari zehazki heltzea; izan ere, edozein eremutako edozein aldatetak zuzenean eragiten baitie.*

21. iruzkina: *Langileentzako baldintza duinak bermatzea.*

A.8. Egoitza-zentroen kontrolari buruz

22. iruzkina: *Egoitza-zentroen kontrol publikoa sustatzea*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
25. jarduketa: Egoitza arretako ostatu-erorkizunari buruzko hausnarketa.	Hausnarketa bat eta jarduera-plan bat diseinatzea eta sustatzea, modu parte-hartzailean, egoitza-eredu berri bateranzko trantsiziorako. Eredu berri horrek honako hauek sustatu behar ditu, besteak beste: zaintzen personalizazioa, eredu berrira egokitutako ratioen eta lan-baldintzen egokitzapena, zentroen kontrol publikorako tresna berriak (kudeaketa-ereduetatik harago), egoitzak ekosistema gisa (parte-hartze komunitarioa eta erabiltzaileen, familien eta langileen parte-hartzea), berrikuntza soziala, teknologikoa eta instituzionala (araudi berria), beste dimentsio batzuen artean.	Gizarte Politiketako Departamentua KABIA organo autonomoa ADINBERRI Egoitza zentroak Zerbitzuen erakunde hornitzaileak Egoiliarak eta senideak Langileak Zentroetako kudeatzaileak Adituak

B. Gobernantza-ereduari buruz

B.1. Interakzio-espazioak

23. iruzkina: *2.2 eta 2.3 galderetan, eremu instituzional eta politikoak daude, baina ez espazio teknikoak. Lankidetzaren teknikoak plataformak ezinbestekoak dira sistemen arteko koordinazioa hobetzeko.*

24. iruzkina: *Koordinazio-gune horiek pertsonarengan eragin praktikoa izan behar dute*

B.2. Koordinazio-esparruak

25. iruzkina: *Alde batetik, uste dut oso gutxitan aipatzen direla lehen mailako arretako zerbitzuak –Etxeko Laguntza Zerbitzua, eguneko arreta edo ostatu-zerbitzuak, esaterako–, eta etxeko arreta indartu beharra, hori baita sistemaren lehenengo erronka (...) etxebizitzak eta apartamentu babestuak eraikitzea bultzatu beharko litzateke, eta Etxeko Laguntza Zerbitzua berrasmatu, eta hori Zorroari buruzko Dekretuarekin lotuta dago.*

26. iruzkina: *Gai bat da lehen eta bigarren mailen arteko eskumen-banaketa eta koordinazioa (...). Nire ustez, arlo horretan lan egin beharko litzateke lehen eta bigarren mailako arretaren gaitasunaren mugaketa berrasmatzeko (...). Gai hori funtsezkoa da, Agenda hori bigarren mailako arretara mugatzea eta udal-eskalara partzialki iristea nahi ez bada.*

27. iruzkina: Sistema gisa eta lurralde-ikuspegiarekin planifikatzen hastea, adibidez, Gizarteratze Plana udalekin batera diseinatu eta garatzea.

28. iruzkina: Udalerriei gehiago laguntzea, batez ere txikiei, gizarte-larrialdiak koordinatzeko zerbitzua sustatuz, helduen babesgabetasunarekin eta indarkeria matxistarekin lotutako egoerei berehala erantzuteko, besteak beste.

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
11 zk.: Gipuzkoako egoitza zentroen sarea pixkanaka egokitzea egoitza arretako eredu berrira.	Jarduera honen helburuak zainketak sustatzen du pertsonalizatzera, egoitza-zentroetako espazio fisikoak egokitzea eta zentro moderno berriak eraikitzea bideratutako ereduak garatzea.	Gizarte Politiketako Departamentua Egoitza zentroak Eguneko zentroak Zerbitzuen erakunde hornitzaileak
23. zk.: Partaidetza Eredua garatzea eta Gizarte Politikak diseinatzea	Ongizatearen Estatuaren eztabaidatalka diseinatzea eta abian jartzea, Etorkizuna Eraikiz (gizarte politiketako teknikari eta arduradunen eta lurralde-erakundearen ekosistemaren arteko interakzio-gunea).	Etorkizuna Eraikiz Gizarte Politiketako Departamentua Zerbitzuen erakunde hornitzaileak Unibertsitateak
24. zk.: Esparru sozialeko erakundeekin elkarrizketa soziala sustatzea	Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia sortzea eta garatzea, zeina Gipuzkoako Gizarte Politikak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko foro bat izango baita.	Gizarte Politiketako Departamentua Hirugarren sektoreko erakundeak
34 zk.: Zaintzen tokiko ekosistemaren garapena sustatzea	Jarduera honen helburua zainketarako tokiko ekosistemaren HERRI LAB eredu diseinatu, garatu eta transferitzea da (profilen estratifikazioa, Kaiser piramidea, kasuen kudeaketa eta balorazio bakarreko tresnen integrazioa barne, Gizarte Politiketako Departamentuan kasu-kudeatzailearekin, udalekin koordinatuta). Lankidetzako Sare Teknikoa.	Eusko Jaurlaritza Etorkizuna Eraikiz Gizarte Politiketako Departamentua Udalak ADINBERRI OSAKIDETZA Egoitza-zentroak, eguneko zentroak eta beste baliabide batzuk Erabiltzaileak (profil desberdinak), profesionalak, zaintzaileak.
35 zk.: Lurralde estrategia bat diseinatzea eta hedatzea etxeko arreta eta zaintzarako eredu berri batera joateko.	Jarduera honen helburua da etxeko zainketa-eredu berri bat bultzatzea, prestazio ekonomikoei eta etxean arreta eta zaintza emateko tresna berrien diseinuari eta ezarpenari buruzko eztabaida aurreikusiz.	Gizarte Politiketako Departamentua Udalak Etorkizuna Eraikiz ADINBERRI Hirugarren sektoreko erakundeak Enpresak Etxeari lotutako arreta-zerbitzuak Erabiltzaileak (profil desberdinak), profesionalak, zaintzaileak.

C. Digitalizazioari buruz

C.1. Hirugarren sektorearen eraldaketa digitala

29. iruzkina: Hirugarren sektorean, beste batzuetan bezala, honako hauek aipa daitezke: digitalizazioa (informazio analogikoa hartzea eta zero eta batetan kodetzea, informazio-sistemek informazio hori biltegiratu, prozesatu eta transmititu ahal izan dezaten), **digitalizazioa** (teknologia digitalen erabilera negozio-eredu bat aldatzeko eta diru-sarrera berriak eta balioa sortzeko aukerak emateko) eta eraldaketa digitala (erakunde batean eraldaketa kulturala

egiteko prozesua, ikuspegi tradizionaletik emergentzia-teknologia digitalak erabiliz, lan egiteko eta pentsatzeko modu berrietara pasatzeko). Zer lortu nahi dugu? Laguntza publikoko programen denbora- eta inbertsio-esparrua desberdina da kasu bakoitzean

C.2. Lankidetzeta digitala

30. iruzkina: *Plataforma digitalak sortzeak ez du nahitaez behartzen jardunbide egokiak eta berrikuntzak trukatzera. Analogikoan trukea mugatua da, baina digitalean ez da hain probablea izango.*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
16. zk.: Zainketarako tokiko ekosistemarako Plataforma Digitala (Herri LAB) abiaraztea	Jarduera honek plataforma digital bat garatzen du, zaintzen tokiko ekosistemekin lotutako erakunde eta erakundeen konektibitatea sendotzera bideratua, datuen elkarreragingarritasuna eta lurralde mailan zaintzen tokiko ekosistemen arteko konektibitatea erraztuz (ekosistemen foroaren euskarria) (digitalizazioa, eraldaketa digitala)	ADINBERRI IZFE Gizarte Politiketako Departamentua Udalak eta tokiko ekosistemak Hirugarren sektoreko erakundeak Enpresak Erabiltzaileak (profil desberdinetako adinekoak, zaintzaileak, profesionalak)
17. zk.: Ikaskuntzarako plataforma digital bat diseinatzea egoitza zentroetarako	Plataforma digital bat garatzea ikaskuntza, prestakuntza digitala eta jardunbide egokien trukea errazteko egoitza-zentroen, eguneko zentroen eta beste baliabide batzuen artean (digitazioa eta digitalizazioa)	Gizarte Politiketako Departamentua Egoitza zentroak Zerbitzuen erakunde hornitzaileak Erabiltzaileak (profil desberdinak) Profesionalak (profil desberdinak)
18. zk.: Etxe eta egoitzetako digitalizazioa bultzatzea	Etxeetan eta egoitza-zentroetan digitalizazioa bultzatzea, Big Data, domotika eta adimen artifiziala bezalako teknologien bidez (digitalizazioa, eraldaketa digitala)	Gizarte Politiketako Departamentua ADINBERRI Etorkizuna Eraikiz Zerbitzuen erakunde hornitzaileak

D. Berrikuntzari buruz

D.1. Hirugarren sektorearen berrikuntza-gaitasunak

31. iruzkina: *3.2. eta 3.3. artikuluei dagokienez, hirugarren sektoreko erakundeek gaitasun berritzaileak oso mugatuak dira, hitzartutako eta kontratatutako lege- eta kontratu-betekizunekin bat baitatoz. Berrikuntza baldintza horietatik kanpo dago, eta, beraz, tamaina txiki eta ertaineko erakunde askoren irismenetik kanpo. Berrikuntza eta esperimendazio egonkorreko laguntza-lerro bat bultzada ona izan daiteke hirugarren sektorean.*

32. iruzkina: *Adimen desgaitasunaren kasuan, Hirugarren Sektoreko erakundeek berrikuntzarako egiturazko gaitasuna behar dute, bai egungo premietarako arreta-eredu berriak definitzeko, bai sortzen ari diren premietarako ereduak eraikitzeko. Pertsonalizazioa funtsezko elementua denez, eragile berritzaileak, ezagutza tekniko hobeak izanik, pertsonaren ezagutza ere izan behar du, eta diseinatutako ereduak praktikan jartzeko gai izan behar du.*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
26. zk.: Berrikuntza eta esperimendazio soziala sustatzea	Elkarlaneko gobernantzan oinarritutako ikuspegi esperimentalak eta ekosistemikoa duten gizarte-berrikuntzako proiektuak aurkezteko deialdi erregular bat egitea.	Gizarte Politiketako Departamentua Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak Enpresak Zentro teknologikoak

31 zk.: Gipuzkoan adimen eta garapen desgaitasuna duten pertsonen parte hartzea eta bizi kalitatea babesteko eta sustatzeko eredu berria	Pertsonen parte-hartzea eta bizi-kalitatea sustatzeko esparru berri bat diseinatzea eta garatzea, adimen desgaitasunaren arreta-, babes- eta laguntza-zerbitzu berrien berrikuntzari esker.	Gizarte Politiketako Departamentua Hirugarren sektoreko erakundeak Adimen desgaitasuna duten pertsonak Adimen desgaitasuna duten pertsonen senitartekoak
--	---	---

D.2. Berrikuntza-proiektu motak

33. iruzkina: *Desgaitasunaren eremurako hobekuntza-proposamenak: a) Zerbitzuen kalitatea hobetzeko proiektuak diseinatu eta garatzea, hainbat erakunderen artean, pertsonarengan oinarritutako plangintzaren eta komunitatearen bizitzan parte hartzearen ikuspegian oinarrituta; b) Programa esperimental berriak diseinatu eta garatzea, zerbitzuen indibidualizazio-mailak hobetze aldera; c) Pertsonen zerbitzu desberdinak ematen dizkieten erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzea.*

34. iruzkina: *Nik uste dut dokumentuan gogoeta egin behar dela mendekotasun-prestazio ekonomikoaren eginkizunari buruz: familia-ingurune zainketarako prestazio ekonomikoaren erabiltzaileei jarraipena egitea, Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoaren bidez ematen den arreta hobetzea eta Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak irekitzen dituen aukerak. Nire ustez, gai hori estrategikoa da, eta jarduketak gisa edo esperimentaziorako eremu gisa planteatu beharko litzateke.*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
35 zk.: Lurralde estrategia bat diseinatzea eta hedatzea etxeko arreta eta zaintzarako eredu berri batera joateko	Etxean arreta eta zaintza emateko estrategia integral eta lurralde-estrategia bat diseinatzea eta hedatzea (Prestazio Ekonomikoei buruzko eztabaida-taldea, babesak, laguntzak, sentsibilizazioa, monitorizazioa)	Gizarte Politiketako Departamentua Udalak Etorkizuna Eraikiz ADINBERRI Hirugarren sektoreko erakundeak Enpresak Etxeari lotutako arreta-zerbitzuak Erabiltzaileak (profil desberdinak), profesionalak, zainzaileak.
31 zk.: Gipuzkoan adimen eta garapen desgaitasuna duten pertsonen parte hartzea eta bizi kalitatea babesteko eta sustatzeko eredu berria	Pertsonen parte-hartzea eta bizi-kalitatea sustatzeko esparru berri bat diseinatzea eta garatzea, adimen desgaitasunaren arreta-, babes- eta laguntza-zerbitzu berrien berrikuntzari esker.	Gizarte Politiketako Departamentua Hirugarren sektoreko erakundeak Adimen desgaitasuna duten pertsonak Adimen desgaitasuna duten pertsonen senitartekoak
32. zk.: Bakardadeen aurrean lurralde estrategia bat diseinatzea eta hedatzea	Bakardadeak identifikatzeko estrategia diseinatzea eta hedatzea, lotura egonkor eta esanguratsuak sustatzea, identifikatzaileei eta monitoreei esker bakardadeak aurreikustea etxeetan, auzoetan eta landa- eta hiri-inguruneetan.	ADINBERRI Gizarte Politiketako Departamentua Etorkizuna Eraikiz Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak Helduak eta adinekoak

E. Ebaluazioari buruz

E.1. Kalitatearen dimentsioa

35. iruzkina: Gomendatuko nuke agentziak zerbitzuen kalitatearen ebaluatzaile gisa duen zeregina argi eta garbi ezartzea, eta, horretarako, pertsonen bizi-kalitatearen printzipioak lantzea, herri guztiak barne hartzen dituzten eta profesionalak (implementatu behar dituztenek) eta erabiltzaileek erraz identifika ditzaketen estandarren (adierazleen) bidez.

36. iruzkina: *Nire ustez, Kalitatea Ebaluatzeko Agentzia bat bultzatu beharko litzateke, ikastetxeetan ematen den arretaren kalitatea hobetzeko, eta ikuskaritzaren eginkizunak osatzeko, Europako gainerako herrialdeetan egiten ari denaren ildotik (bereziki Alemanian, Ingalaterran, Eskozian edo Suedian) ... Oinarri gisa, hiru funtzio osagarritan zentratu beharko litzateke: a) Kalitate-estandarren definizioa, b) Zentroetan emandako arretaren ebaluazioa, ebaluazio horien hedapen publikoa eta zentro horien ziurtapena/egiaztapena/kalifikazioa, c) Emaitza-adierazleen hedapena, lurralde-mailan (datu agregatuak) zein maila indibidualean (zentroen datuak) zentratuta.*

E.2. Ebaluazio-parametroak

37. iruzkina: *Gakoa izango litzateke eragileen arteko adostasuna monitorizazio horren oinarri izango diren parametroetan. Adimen desgaitasunaren arloan indarrean dauden kalitate ereduak hiru ebaluazio eremutan dute eragina: KUDEAKETA (zerbitzuen iraunkortasunerako eta eraginkortasunerako oinarritzakoa), baina orobat BIZI-KALITATEA (gure esku-hartzeak erabiltzailearen bizi-kalitatearen parametroetan duen eragina) eta ARDATZ ETIKOA (eskubideak aitortzea eta benetan baliatzea).*

E.3. Gardentasuna

38. iruzkina: *Gardentasuna zeharkakoa da, eta, gardentasunaren mesedetan, guztiz beharrezkotzat jotzen dugu islatzea eta sarbide irekia ematea egiten den lan publikoari, lortzen diren akordioei, emaitzei eta ebaluazioa ezagutzeari, alderdi guztietan.*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
5. zk.: Kode etikoak berrikustea	Etika-kode berriak diseinatzea eta sustatzea COVID-19aren krisian ikasitako lezioen ondoriozko zainketen kudeaketan	Gizarte Politiketako Departamentua Etika-kontseiluak Zerbitzuen erakunde hornitzaileak
36. zk.: Berrikuntza eta kudeaketa aurreratua sustatzea, Gizarte Politiketako Departamentuko lehentasunezko jardura-ildo gisa	Gizarte Politiketako Departamentuko Berrikuntza, Garapen eta Ebaluazio Unitatea diseinatzea eta abian jartzea, sareko ebaluazioa koordinatzeko eta garatzeko (nodo parte-hartzaileak)	Gizarte Politiketako Departamentua ADINBERRI
37. zk.: Ebaluazio parte-hartzailea sustatzea egoitza-zentroetan (Partaidetzarako eta berrikuntzarako monitoreak)	Teknika kuantitatiboetan (bizi-kalitatearen eta gizarte-berrikuntzaren adierazleak) eta partaidetza-tekniketan (politikaren baterako diseinua) oinarritutako ebaluazio-monitore bat diseinatzea eta hedatzea egoitza-zentroetan.	Gizarte Politiketako Departamentua Egoitza zentroak Zerbitzuen erakunde hornitzaileak Egoiliarak Senitartekoak Zentroetako profesionalak Zentroetako kudeatzaileak
38. zk.: Sareko ebaluazio-eredua diseinatzea eta abian jartzea (Trantsizioen monitoreak)	Trantsizioko Gizarte Politikak ebaluatzen dituen sareko ebaluazio-eredu bat diseinatzea eta abian jartzea, bizi-kalitatearen estandar batean oinarrituta. Ebaluazio-eredua partaidetza-nodoetan egituratzen da, politikak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko prozesuan gardentasuna errazten dutenak.	Gizarte Politiketako Departamentua ADINBERRI Teknologia Zentroetako zerbitzuen erakunde hornitzaileak IZFE Kontraste-taldeak (sindikatuak, patronalak, erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak, adituak, erabiltzaileak/familiak eta profesionalak)

III. eranskina. Gardentasuna balidazioan eta adostasuna	Kontraste-taldeek jasotako ekarpenak jasotzea eta aurkeztea Agendaren diseinu parte-hartzailea frogatzeko	Kontraste-taldeak (udalak, sindikatuak, patronalak, erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak, lurralde-kontseiluak, adituak, erabiltzaileak/familiak eta profesionalak)
--	---	---

F Komunikazioari buruz

F.1. Komunikazio Plana

39. iruzkina: 4.1 eta 4.2 galderetan, GFAk zentroekin duen harremana eta komunikazioa arina eta etengabea da, baina ez beti emankorra eta sistematikoa izan. Urteko komunikazio-plan bat eduki behar da, argi eta garbi identifikatzeko nor, zer eta nola egiten den.

F.2. Komunikazio bideak

40. iruzkina: Erakundeek erakundeekin dituzten komunikazio-kanalak asko hobetu daitezke (nahiz eta kudeatzeko errazak ez izan), bi aldeetako solaskide ugariak direla eta. Erakundeen eta familien arteko komunikazioari dagokionez, TSSko erakundeok, de facto, kasuaren kudeatzaile lana egiten dugu, eta, zalantzarik gabe, eremu hori hobetzen lagun genezake.

F.3. Komunikazio-audientziak

41. iruzkina: Garrantzi handia emango nioke gizarte-komunikazioari. Egonkortze-politiketan, jokoan dugu zaintzaren etorkizuneko eredia aktibatuko duen komunitate baten sorreraren zati handi bat, eta, beraz, gizarte-politiketan parte hartzen duten kolektiboen aktibazioan lan egin behar dugu.

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
19. zk.: Zainketen Lurraldeari buruzko web-ataria	Zainketei buruzko kontzeptuak, esperientziak, kasuak eta informazioa atari bakarrean egituratzea, bizi-ziklo gisa (gizarte-politiken eremu guztiak integratuz). Atariak Gipuzkoa 20>30 Agendaren aurrerapenen jarraipena, informazioa eta komunikazioa erraztuko ditu.	Gizarte Politiketako Departamentua Gipuzkoako Foru Aldundia (beste departamentu batzuk) ADINBERRI Etorkizuna Eraikiz Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak Enpresak Sare Publikoko baliabideak Populazioak: haurrak eta nerabeak, hauskortasun-egoeran dauden helduak (gizarteratzea) eta adineko helduak (mendekotasuna).
20. zk.: Komunikazio kanpaina bat abiaraztea	Gipuzkoa 20>30 Agendaren aurrerapenei buruzko bi informazio-kanpaina egitea urtean (bideoak, newsletterrak, prentsa eta beste tresna batzuk)	Hirugarren sektoreko erakundeak Unibertsitateak Zaintzarekin lotutako enpresak Udalak Profil desberdinak dituzten pertsonak
21. zk.: Partaidetzako sentsibilizaziorako programa	Think Tank Etorkizuna eraikiz (Gipuzkoako Ongizatearen Estatuaren Etorkizunari buruzko Liburu Zuria) izenekoaren emaitzen zabalkunde zabala egitea.	GFAko teknikariak Udaletako teknikariak Sindikatuak eta patronalak Hirugarren sektoreko erakundeak Enpresak Unibertsitateak

G. Finantzaketari buruz

42. iruzkina: *Finantzaketa-ereduek malgutzeko beharrak eta pertsonaren premien bilakaera bera hartu behar dituzte kontuan.*

44. iruzkina: Adimeneko desgaitasunaren kasuan, politika- eta aurrekontu-mekanismoak behar dira, adimeneko desgaitasuna duen pertsonaren beharren kudeaketa integratua/koordinatua bermatzeko.

44. iruzkina: *Nire ustez, ez dago inolako aipamenik finantzaketaren inguruan (koordainketa, zergak, aseguruak, etab.). Nire ustez, horri buruzko elementuren bat planteatu beharko litzateke, bai jarduketa gisa, bai esperimintatzeko eremu gisa.*

45. iruzkina: *Erkidegoko zerbitzuak prestazio ekonomikoak baino gehiago hobetzea, erkidegoko zerbitzuetan (ez prestazioak) egoitza-zerbitzuetan baino inbertsio handiagoa bermatuz (...) Zerbitzu batzuetan zerbitzuen finantzaketa prozesuen eta emaitzen arabera esperimintatzea, eta ez plaza/egunaren arabera.*

46. iruzkina: *Kontingentzia horien prebentzioa sustatzeko finantzaketa-ildoak ezartzea: desgaitasuna, mendekotasuna, bazterkeria, babesgabetasuna eta larrialdiak, eta autonomia, inklusioa, babesa eta segurtasuna edo laguntzak sustatzea.*

Gomendio horiek 2021-2023 Ekintza Planean sartzea		
Jarduketa zenbakia	Jarduketaren helburua	Inplikaturako eragileak eta taldeak
26. zk.: Berrikuntza eta esperimintazio soziala sustatzea	Elkarlaneko gobernantzan oinarritutako ikuspegi esperimental eta ekosistemikoa duten gizarte-berrikuntzako proiektuak aurkezteko deialdi erregular bat egitea.	Gizarte Politiketako Departamentua Udalak Hirugarren sektoreko erakundeak Enpresak Zentro teknologikoak
34 zk.: Zaintzen tokiko ekosistemen garapena sustatzea	Jarduera honen helburua zainketarako tokiko ekosistemen HERRI LAB eredu diseinatu, garatu eta transferitzea da (profilen estratifikazioa, Kaiser piramidea, kasuen kudeaketa eta balorazio bakarreko tresnen integrazioa barne, Gizarte Politiketako Departamentuan kasu-kudeatzailearekin, udalekin koordinatuta). Lankidetzako Sare Teknikoa.	Eusko Jaurlaritza Gizarte Politiketako Departamentua Udalak ADINBERRI OSAKIDETZA Egoitza-zentroak, eguneko zentroak eta anbulatorioak Erabiltzaileak (profil desberdinak), profesionalak, zaintzaileak.
30 zk.: Gizarte Inklusio Plan berria hedatzea	Jarduera honen helburua da gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko ibilbide berriak diseinatzea eta hedatzea (ekonomikoki gizarteratzeko aukerak). Erakunde arteko koordinazioa	Gizarte Politiketako Departamentua Hirugarren sektoreko erakundeak Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak
35 zk.: Lurralde estrategia bat diseinatzea eta hedatzea etxeko arreta eta zaintzarako eredu berri batera joateko.	Jarduera honen helburua da etxeko zainketa-eredu berri bat bultzatzea, prestazio ekonomikoei eta etxean arreta eta zaintza emateko tresna berrien diseinuari eta ezarpenari buruzko eztabaida aurreikusiz.	Gizarte Politiketako Departamentua Udalak ADINBERRI Etorkizuna Eraikiz Hirugarren sektoreko erakundeak Enpresak Etxeari lotutako arreta-zerbitzuak
31 zk.: Gipuzkoan adimen eta garapen desgaitasuna duten pertsonen parte	Pertsonen parte-hartzea eta bizi-kalitatea sustatzeko esparru berri bat diseinatzea eta garatzea, adimen desgaitasunaren arreta-, babes- eta	Gizarte Politiketako Departamentua Hirugarren sektoreko erakundeak Adimen desgaitasuna duten pertsonak



hartzea eta bizi kalitatea babesteko eta sustatzeko eredu berria	laguntza-zerbitzu berrien berrikuntzari esker.	Adimen desgaitasuna duten pertsonen senitartekoak
--	--	---